183. zenbakia 2000-7-7

Goierritarra

Oiloak larrean

Argentinako idiazabaldarrak Goierriko Idiazabalen

Trikizio musika taldea

Txirrindulari zaletasunez

Oilategia Atxa

Orain: Kaseros

Larrean dabiltzan oiloen arrautzak

✆ 943 16 09 71 Elosegi, 25 LAZKAO

SEGURAN

LAISTER FAMIALIABAKARREKO 12 ETXEBIZITZA

ERAIKITAKO AZALERA

Beheko solairua:	87,36 m²
Lehenengo solairua:	62,34 m²
GUZTIRA:	149,70 m²

INFORMAZIOA eta SALMENTA:
943 49 38 73

ERAGILEA:
ARIN ERAIKUNTZAK, S.L.
Mamuteko bulegoak, 5. solairua, 6 bulegoa
OIARTZUN

ARKITEKTOA:
as&Le arquitectos asociados

Ataun-San Martinen

- ATAUN ERDI ERDIAN.
- 2-3 LOGELA.
- DUPLEX.
- LEHEN KALITATEZKO MATERIALAK.
- 16.000.000 PEZETATIK AURRERA.
- BIDEGORRIAREN ONDOAN.
- INGURUNE PAREGABEAN

INFORMAZIOA SALMENTA:

SUSTATZAILEA:
ATAUN SAN MARTIN ETXEBIZITZAK,S.L.

GESTIOA: GUR

RE/MAX Gipuzkoa

DONOSTIA: ☎ 943 40 40 33
BEASAIN: ☎ 943 16 40 55
NAGUSIA KALEA, 42 - BEASAIN

INTERNET: http://www.remaxgipuzkoa.com/ataun.html **** e-mail: remax@remaxgipuzkoa.com

Non zer

7 TXANDAKA: Rufino Iraola

8 AHOLKUA: Merkealdiak

9 KATE MOTZEAN: Arantxa Telleria

10-11: Oiloak larrean Lazkaon

12-13: Argentinako idizabaldarrak

14-22 KRONIKAK

LAZKAO 14: Orobione. GABIRIA 15: Aztiriko jaiak ZERAIN 15: Reflectaccion taierra. ATAUN 16: Presoen aldeko ibilaldia. ORMAIZTEGI 17: Lierniko erromeria. MUTILOA 17: Jaiei errepasoa. ORDIZIA 18: Presoen aldeko batzordea. IDIAZABAL 19: Muskildira bisita irailean. ZALDIBIA 20: Gazte festak. BEASAIN 21: diru-laguntzak. ZEGAMA 22: Aizkorriko Lagunen jai arrakastatsua.

22: BERTSOLARITZA: Aitzol Munduate eta Iban Urdangarin.

22: MUSIKA: Trikizio musika taldea

24-25: KIROLA: Zikloturismoa

26-27: DEBALDEKO IRAGARKIAK

28: AGENDA

29: ZAHARRAK BERRI: Estibaliza ibilaldia

30 FOTO ZAHARRA: Lazkaotarrak.



Josune Bereziartu eskalatzailearen marka berria:

8c+ bidea kateatu duen munduko lehen emakumezkoa

Honky Mix du izena eta Oñatiko Araotzen dago. 35 metro eta 60 mugimendutik gorako jarraipeneko bidea da. Rikardo Otegi eta Josune Bereziartu senar-emazteek ireki zuten orain dela pare bat urte. Orduan Rikardok kateatu zuen bidea eta harrezkero maila handiko hainbat eskalatzaile saiatu badira ere Josune izan da goraino iristen bigarrena.

Honky Mix 8c+ zailtasunekoa bezala dago katalogatuta eta hain zailtasun handiko biderik igotzea lortu duen emakumezkorik ez dago munduan. Are gehiago aurretik Josunek 8c zailtasuneko 3 bide kateatzea lortu du (Honky Tonky Araotzen 1998an, White zonbie eta Ras Baltzolan iaz) eta ez dago beste emakumerik 8b+ mailatik pasa denik. Beraz goierritar eskalatzailea munduko kirol eskaladako gailurrean dago eta egunetik egunera koska bat gorago igotzen ari da gainera.

Bi hilabete eta erdi eman du Josunek bide horretan probatzen. Hamabost egunetan hainbat saiakera egin eta pare bat aldiz gutxiren faltan geratu ondoren ekainaren 28an lortu zuen hasi eta goraino batere erori gabe igotzea. Horretarako eguraldi aldetik, forma aldetik eta mentalizazio aldetik baldintza egokienak behar dira eta egun horretan lortu zuen dena bere alde izatea.

Aurten bertan, Josunek Katalunian 8a zailtasuneko bidea kateatu zuen bistaz, hau da, bidea aurretik ikusi gabe eta batere entsaiatu gabe.

Goi mailan dabiltzan gizonezko askok lortu ez dituzten lorpenak dira hauek.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA **Argitaratzailea:** Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19

E-mail:goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Erredakzio Batzordea:** Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aimar Maiz, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, Aitziber Murua, EKA eta Rufino Iraola.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.000 ale. **SSN:** 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76

GOIERRITARRAk ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria

Presoen eskubideen aldeko martxa uztailaren 1ean iritsi zen Goierrira

Uztailaren 1ean iritsi zen Goierrira, Euskal Herri osoan egiten ari den presoen eskubideen aldeko martxa. Segura eta Ormaiztegin ibili zen larunbatean. Igandean, berriz, Ataundik barrena sartu eta Beasainen egin zen ekitaldi nagusiarekin amaitu zen Goierriko bira. Goierriko erakunde, elkarte eta pertsona ezberdinek, lekukoa eramanez, 100 metrona egin zituzten. Herri bakoitzean atxekimendu ugari lortu zituzten antolatzaileek eta igandean batez ere, jende askok hartu zuen parte ibilaldian. Argazkia, Ordiziako azken metroena da, lekukoa preso ohiek eramana. Beasaindarrei eman zieten lekukoa.

Beasaingo sozialistek 100 urte

Beasainen alderdi sozialista sortu zela 100 urte bete dira eta hainbat ekitaldi egin zituzten ekainaren bukaeran. Ekitaldi nagusia ekainaren 25ean egin zen eta Beasaingo militante historikoei omenaldia egin zitzaien. Jose Manuel Urizar, Teodoro Diez, Celina Menaza, Eloy Santibañez, Jose Mendoza eta Francisco Blanco izan ziren omenduak. Ekitaldi politiko honetan, Rosa Diez eta Nicolas Redondo soialistek hartu zuten parte.

Udalbitzari eskaera EHEk

Uztailaren 4an Goierriko Euskal Herrian Euskaraz taldeak Beasainen egindako konzentrazioarekin Udalbiltzari eskaera berezia egin zion: euskararen aldeko neurriak abian jar ditzala.

Lan istripua Aceralian

Ekainaren 26an Olaberriako Aceralia enpresan izandako lan istripuaren ondorioz, 60 urteko Maximo C. langileari hanka moztu behar izan diote.

Itsasondoko Jaso saritua

Itsasondoko Jaso enpresak Poloniako Poznan hiriko Nazioarteko Azokan saria jaso zuen. Azoka horretako produktu onenak saritzen dituzte eta 1.700 enpresen artean, Jasok egiten duen garabi-dorre modernoa saritu zuten.

CAFek kontratu berria

Beasaingo Fabrika Handiak 4 kotxeko 15 tren egiteko kontratua sinatu du Irlandako Gobernuarekin. 2002. urterako egin beharko ditu.

Idiazabalgo Gaztaren Kofradiaren XI. kapitulua

Uztailaren 2an ospatu zuen Ordiziako Idiazabalgo Gaztaren kofrafiak bere XI. kapitulua. 1990. urteko irailaren 4an sortu zen kofradia hau, 15 lagunek osatua. Gaur egun 57 ditu.

Beste 5 ohorezko kofrade berri izendatu zituzten egun horretan: Hilario Arbelaitz Zuberoa jatetxeko sukaldaria, Martin Berasategi sukaldaria, Martinez jatetxeko Kontxita Martinez sukaldaria, Ordiziako azokara asteazkenero 55 urtean etorriz daraman Ezkio-Itsasoko Mikeli Lopetegi eta Juan Migel Padilla Otxandioko artzaina.

Pirinioak Mediterraneotik Kantaurira zeharkaldia

Uztailaren 21etik abuztuaren 29ra astebeteko 5 zatitan

1 Banyols (uztailak 21) - Eyne (uztailak 27)
2 Eyne (uztailak 29) - Cuanca (abuztuak 4)
3 Cuanca (abuztuak 6) - Pinetako paradorea (abuztuak 12)
4 Pinetako paradorea (abuztuak 14) - Olloko lepoa (abuztuak 20)
5 Olloko lepoa (abuztuak 22) - Hondarribia (abuztuak 28)

✆ 943 18 02 53 (J. Ramon Agirre"Marron") - 943 34 04 59 (Txingu Arrieta)

LOINATZ
Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari, ogitarteko, pintxoak
☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN

Xabier Mendiguren: 'Txakurraren alaba'

'Txakurraren alaba' liburua kaleratu du Xabier Mendiguren idazle beasaindarrak. Zaragozatik Donostiara etorritako Guardia zibil edo polizia baten alabaren istorioa kontatzen da bertan. Elkarlanean argitaletxeak gazteentzako Branka saileean kaleratu du.

Imuntzo eta Beloki: Kilometroak 2000ko kantua

2000. urteko Kilometroak egunerako musika Imuntzo eta Beloki taldeak egin dute. Letra Sebastian Lizaso bertsolariarenak dira.

Joxe Felipe Auzmendi eta Ema Garcia

Joxe Felipe Auzmendi beasaindarrak 'Jaiak 2000' saioa aurkeztuko du udan zehar. Ema Garcia ordiziarrak berriz, 'El submarino amarillo'. Lehenengo saioa ETB-1ean eskainiko da eta bigarrena ETB-2an.

Zumalakarregi museoa

Uztaila eta abuztuko ordutegia: asteartetik ostiralera 10:00-13:00 - 15:30-18:30, larunbat eta igandeetan 10:00-14:00 - 15:30-18:30.

Kirola

Joseba Beloki

Lazkaoko txirrindularia Frantziako Tourrean dugu lehian, lehenengo aldiz. Lasterketa amaitzea du helburu Festina taldeko Joseba Belokik. Lehenengo eguneko erlojuz aurkakoan, 14. egin zuen lazkaotarrak.

Beasainen badu bere Peña txirrindulariak eta uztailaren 9 eta 10eko etapak ikustera joateko autobusa antolatu dute. Izena ematekoa Basakana tabernan edo Solo Video bideo klubean egin behar da.

Ekain Arruabarrena eta Emilio Sanchez Espainiako txapeldun

Lazkaoko txirrindulariak ezindu fisikoen Espainiako txapeldun dira berriz ere. Aurtengo Paraolinpikoetan parte hartuko duten ala ez zalantza dago oraindik. Informazio gehiago Lazkaoko kronikan duzue.

Salva Iriarte Errealeko 2. entrenatzaile

Iriarte beasaindarrak Sanse utzi eta Clementeren laguntzaile postua hartu du. Azken 3 urteetan Sanse 3. mailatik 2.B mailara igo ezinik ibili ondoren Lopez Ufarterekin postu trukaketa egin du.

Ordiziako pilota taldea Herriarteko herramienta txapeldun

Gipuzkoako Herriarteko txapela lortu dute ordiziarrek, herramienta atalean. Donostiarren aurkako finala 2-0 emaitzaz irabazi zuten. Larruzko paletan Berasategi eta Goiburuk 35-34 menderatu zituzten donostiarrak eta pala motzean Lakalle-Aizpuruk 40-34ko emaitzaz.

IDIAZABALEN APARTAMENTU ETA ETXEBIZITZAK
ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN



- 1 eta 2 logelakoak.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- Garajeak igogailu zerbitzuarekin. 1,4 miloitik aurrera.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.

686 414 901 - 943 450 721

INMOBILIARIA adarra
ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

Ordiziako San Joan sua

Urtero ohikoa dugun bezala San Joan bezperan Ordizian, beste herri ugaritan bezala, suaren inguruko festa herrikoia burutu genuen nahiz eta ez izan Ordiziako udaleko agintarien laguntzapean. Lerro xume hauetatik eskerrak eman nahi genizkioke lagundu eta parte hartu zuen ordiziar orori.

Lehia eta modernitatearen izenean ari dira milaka urteko Euskal Herria Euskal Hiri bihurtu nahian, hau da, ezaugarririk gabeko megapoli neoliberal. Gure izaera eta herriaren izaera lukurarien eta kapital espekulatiboaren interesen zerbitzura jarriz.

Herri-erakundeetatik, sare alternatiboetatik, asistentziazko erakundeetatik etabarretatik, dena irensten duen justizia gabeko Sistema honi eusteko, aurre egiteko, edo sistema hori iraultzeko edo zuzentzeko ahaleginak egiten ditugu —erakunde bakoitzaren aldarrikapenaren—arabera eta paradoxa bada ere, munduko gizon-emakumeen erdia gosez hiltzen du justizia gabeko sistema honek. Hanburgesaren, gosearen eta gerraren kultura sozializatu egiten duen sistema hau, ez da gai izan, ordea, kultura desberdinak eta Euskara bezalako hizkuntzak ulertzeko. Solidaritateaz hitz egiten duen munstroak pateratan hiltzen ditu afrikarrak. Izugarri gustatzen zaio zimentua eta abiadura handiko trenekin, errepideekin eta autobideekin jolasean ibiltzea (ordaindu behar badira, hobe). Elikadura, estetikan eta kontsumoan oinarritzen duen basapiztia transgenikoak okela eta arraina mundu erdian zehar bidaiatzera bultzatzen duen bitartean, erraza da Donostian Cadizeko antxoak jatea, Bermeokoak Andaluziarantz garraiatu baititu. Herriak klonatzen dituzte, eta gizon-emakumeen aniztasunarekiko itxaropena ari da itzaltzen, mundua berdintzen duten etorkizuneko edo gaurko esperientzia genetikoak baliaturik.

- Gerarazi makina, faborez!

Gizon-emakumeak suntsitzen dituen proiektu horri ihes egiten dio herri-mugimenduak. Itxaropenik gabeko etorkizuna ez da hainbeste astakerietatik askatuko kolektiboki eusten ez badiogu eta (borondatezko lankideak izan arren) Estatu espainiar eta haren armadaren gainetik dagoen Nazioarteko Sistema baten agindua betetzen badugu. Desobedientziatik sortu beharra dago Estrategia Liberatzailea lurraren arrasetik ahal den gertuena, herri-boterearen aldeko kota altuagoak egunero antolatuz, morrontzarik gabeko Euskal Herria eraikitzeko.

Euskal herri-mugimenduen ekintzarik garrantzitsuena izango da Bizi-Kalitatea izango duen gizartea eraikitzea, gauza xumeak, muga naturalak, lasaitasuna, lan egitea bizitzeko, solidaritatea... berreskuratuko dituen gizarte-eredua, axolagabekerian eta besteak? Hor konpon! gisako esapideetan murgilduta dagoen buru gutxi eta urdail asetuezinezko mamuari aurre eginez. Hautsi dezagun nagikeria eta sortu dezagun gure paradisu propioa, justizian oinarrituriko etorkizunaren aldeko itxaropenak bultzatzuta, naturarekiko hurbiltasunari eta armoniari lehentasuna emanez. Lurra (Herria) defendatuko dugu, bizikidetza eta anaitasunerako tokia izango dena, baliabideak justiziaz banatzen badira. Halaber, gure lurra (herria) propioa, Euskal Herria, sustraiak lurperatzen ditugun tokian sentitu, hitz egin, bizi izateko. Antimilitaristak, baserritarrak, ekologistak, feministak, internazionalistak, auzoko mugimenduko partehartzaileak, langabetuen asanbladak, e.a., guztiok dugu interes berbera. Lur (Herri) hau geurea da, gu guztiona. Eta auzoz auzo, haranez haran defendatuko dugu, hainbat erdipurdiko demokrata nahigabetu arren, herri-mugimenduek benetako demokrazia erabiltzea haien amesgaiztorik handiena delako.

Beren demokrazia delegatuan autojustifikaturik, kontrolatu edo gustatzen ez zaizkien ekimenak ekonomikoki itotzen saiatzen dira, San Joan eszeneratze honekin gertatu den bezala, gure diruak xahutzen dituzten bitartean, gustu txarreko ekitaldietan, espainolkerietan. Eta gainera, batzuek lau haizetara aldarrikatzen dute euren abertzaletasuna "hankak lur gainean jarrita". Horregatik, esaten diegu hemen gaudela, hemen jarraitzen eta jarraituko dugula. Hankak lur gainean jarrita, baina Utopiaren aukerari so eginez, ez Estatu espainiarrak batzuei eskaintzen dien urrezko txekor neoliberalari.

Su Gorri taldea

UNTXUNDEI
garajea
OSINALDE
karrozategia
☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

Barandiaran
ZERAMIKAK

- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak
☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Aitziber Garmendia

Sanferminak

Dagoeneko atarian da
sanferminen tenorea.
Zapi gorria lepoan eta
odolean adorea.
Iruña edo Lesaka ere,
denona da ohrea.
Gure altzoan erne berri da
kuraiaren zizarea.

Ate eskergak zabaldu eta
somatu dut tupustean,
laurehun kilo eta bi adar
harrabotsaren atzean;
lau oin bi baino txit zaluago
direla konturatzean...
Aurten etxean geldituko naiz,
ondo pasa bitartean!

Totum revolotum

Rufino Iraola

Ez dakit nondik hasi, eta ez dakit nola amaituko den artikulu hau. Deliberatu dut alferrik dela eskema egin eta haren arabera idaztea, zeren eta ziur nago gertakizunen hariak eskema zaharra baliogabetu eta berria eskatuko lidakeela, artikulua bukatzerako. Publikatzerako, berriz, nik hemen aipatzen ditudan kontuek auskalo noizkoak emango duten! Izan ere, atzoko notizia, hobeto esan, atzo politikoren batek botako astakeria, gaur besteren baten handiagoarekin estali, eta segi aurrera! Horixe da hemen egiten den politika bakarra, hau da, hemen ez da politikarik egiten.

Hemen tratalaritza eta azpijokoa besterik ez dago, eta guztiguztia helburu bakarrarekin: ahalik eta botorik gehien lortu, ahalik eta aginte zatirik handiena eskuratzeko, problemak areagotzearen kontura bada ere. Izan ere, nori interesatzen zaio problemak gainditzea, problemek irautea baldin bada askoren "modus vivendi" bakarra?

Oraindik ez da denbora asko Ibarretxe jaunari honako hau entzuten niola: "Gabiltzan kontuz, liskar politikoa esparru sozialera hedarazi ez dezagun". Ez al da gogorra lehendakariak berak hori esan beharra? Politika, berez, gizartea antolatzeko lanabesa da, baina, egia garbi bezain gordin esanda, euskal gizartea alde horretatik umezurtz dago. Esan dezakegu politikari esker ez, baizik eta politika gorabehera aurrera egiten duela Euskal Herriak. Kafkiano samarra! Alabaina, ez dut esan nahi lehendakariak egin zuen oharra egin beharrekoa ez zenik, egia baita politikaren erruz enfrentamendu zibilera irits gintezkeela. Hain zuzen ere, hortxe ikusten dut nik hemengo politikaren izaera kafkianoa. Bai, Kafkarena parafraseatuz, hauxe esan genezake: "atea zuretzat bakarrik dago irekita, baina ez zaitezke sar", eta ondoren transferra egin: "politika gauzak konpontzeko da, baina hondatzeko baizik ez du balio".

Esango didazue Aznarren fijazio, Mayorren burugogorkeria, Historia Akademiaren historia eta beste hainbat eraso politiko eta mediatikoren kontra defenditu beharra dagoela. Bai, baina dagoen defentsa bakarra politika burutsua egitea da, eta ez laborategiko entseguetan denbora galtzea, edota beren jokoan erortzea. Jakina, politika burutsuak ezinbesteko oinarri bat du, EAJ eta EAk mila aldiz eskatu dutena: indarkeria bertan behera uztea. Ez dago beste erremediorik. Bestela, berriro ere, Kafkarena gerta dakiguke: beste erremediorik ez egotea, baina beranduegi izatea. Politika burutsua gehiago ere bada, ordea. Eta horretan erantzunkizun handia dute EAJ eta EAk.

OSTEOPATIA MEDIKU ZENTRUA

Rikardo San Vicente Dr. *Koleg. Zkia. 4371*
Pariseko Bobigny Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean Osteopatian diplomatua

- Lunbalgia, dorsalgia, zerbikalgia, sorbalda mindu eta gainontzeko lokomotozio-aparatuaren arazo mekaniko-funtzionalen eskuzko medikuntza tratamendua.
- Tendinitis, gihar, tendinoso eta gihar-eskeleto arazoen elektromedikuntza bidezko tratamendua.

Ordutegia: 16:30etik 20:00etara. Aldez aurretik txanda eskatu

☎ 943 880 728 Garmendia Otaola 7 behea. BEASAIN

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua,20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

Merkealdiak

Urtero-urtero izaten dira merkealdiak, sasoi jakin batzuetan dendariek merkeago ateratzen baitituzte beren produktuak.

Baina merkealdiak ere legearen arabera araututa daude, eta hori dena azaltzen saiatuko gara. Denda bateko produktuak lehen baino merkeago saltzen direnean, merkealditan daudela esaten da. Sasoi aldaketa dela eta, denboraldi bukaera dela eta, salgaien likidazioa dela ... merkealdiak.

Merkeago saltzen den produktuak kalitate eta etiketai arau guztiak bete behar ditu, eta ezin du akatsik izan. Merkealditan egongo ez bagina bezala joka dezakegu hondatuta erosten ditugun produktuekin, hots, erreklamazio bide berberak erabiltzeko eskubidea dugu.

Merkealditan jartzen diren produktuek, aurretik gutxienez hilabete bat egon behar izan dute denda berean; eta inolaz ere ezin daitezke merkealditarako soil-soilik egin, ezta ekarri ere.

Merkealdiak gutxien astebete iraun dezake eta bi hilabete gehienez, eta noiz hasi Eusko Jaurlaritzak agindu behar du.

Dendako arduradunak Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailari adierazi behar dio noiz hasiko dituen merkealdiak. Gainera, zenbat denboraz iraungo duten ere jakinarazi behar die kontsumitzaileei.

Produktuetan argi eta garbi azaldu behar dira lehengo prezioa eta merkealditakoa. Aurreko sei hilabetetan, hogeita hamar egunez jarraian, produktu horretxek izan duen prezioa da "lehengo prezioa".

Dena den, ez dira beti derrigorrez bi prezioak jarri behar. Esaterako, produktuak ehuneko finko bat merketzen badira, nahikoa da ehunekoa azaltzea eta kito.

Produktu merkeak eta produktu normalak denda berean salgai jarriz gero, bi sailak ezin dira nahasita egon, hau da, argi eta garbi bereizi behar da zeintzuk diren merketuriko salgaiak eta zeintzuk merketugabeak.

Produktua hondatuta egonez gero edo beste edozein akatsik izanez gero, saltzaileak derrigorrez aldatu behar digu. Zenbait saltokitan produktua itzultzeko aukera ematen dute, produktua ondo egon arren. Badaezpada ere, galdetu ea posible den produktua itzultzea, arrazoiak izanak izan.

Ordaintzeko moduak zeintzuk diren ere jakin behar dugu. Kreditu txartelarekin ordaintzeagatik ez dugu inongo errekargurik izan behar. Merkealditan azaltzen den prezioa ordaindu behar da, besterik ez.

Eta bukatzeko, ez ahaztu faktura edo tiketa eskatzea, erreklamazioa egiteko beharrezkoa da eta.

EKA
Euskalerriko Kontsumitzaileen Antolaketa

Lehiaketa

Galdera

Nork idatzi du 'Txakurraren alaba' liburua?

Erantzuna uztailaren 17rako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria 'Txakurraren alaba' liburua eta GOIERRITARRA-ren kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: Jokin Urain.

Irabazlea:
Rosa Plazaola (Beasain)

Zaldizurreta K. BEASAIN

SEGURA IRRATIA
F.M. 89.2
EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

BERRIZ ARANBURU
ERROPADENDA
Nagusia, 8 ☎ 943 88 04 53 BEASAIN

MUJIKA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Euskara txukunean

Telefonoan

Nola esan behar da **deituko zaitut** ala **deituko dizut?** Biak dira zuzenak. Hemen, Goierrin, deituko dizut erabiliago da, eta badugu beste forma bat gure-gurea eta ahazten ari zaiguna, **hots egingo dizut,** alegia.

Eta telefonoz hots egiten duguenan, nola galdetu behar dugu? **Mikel dago? Hor dabil Mikel? Hortik dabil Mikel? Hor dago Mikel?** Ez, bada, horrela ez. Euskara jator-jatorrean **Hor al da Mikel? Hor da Mikel?** edo **Etxean al da Mikel?**

Baina etxean edo dena delako tokian dagoela dakigunean, eta besteren batek hartzen badu telefonoa, nola esango diogu? **Jarriko al didazu Mikelekin?** ala **Jarriko al nauzu Mikelekin?** Lehenengoa, hau da, **Jarriko al didazu Mikelekin?** inola ere ez, izan ere, zer jarriko didazu Mikelekin? ezer ez. Bigarrena da, beraz, zuzena. Beste forma batzuk ere, bururatzen zaizkigu: **Esango al diozu Mikeli jartzeko? Esango al diozu Mikeli telefonoa hartzeko? Mikelekin hitz egin nahi nuke** edo **Mikelekin hitz egin nahi dut.**

Maizpide Euskaltegia

Arantxa Telleria

Lirain lurrindegia

Eguzki ala itzala?
Itzala. Denok dakigu eguzkiaren beharra bizitzarentzat baina hala ere azkenaldi honetan eguzkia arriskutsua bihurtzen ari zaigu ozono delakoaren zuloarengatik.

Eguzkia hartzeko ordurik egokiena?
Goizeko lehen orduak eta arratsaldeko azkenak.

Eta txarrena?
Egunaren erdialdeko orduak.

Gero eta gehiago zaintzen al gara?
Bai noski, gaur egun itxura eta gorputza asko zaintzen ditugu, norbera hobeto sentitzen baita.

Aurpegia naturala ala makilatua?
Normalean makilatuta, gure edertasuna nabarmentzen dugulako eta gure akats txikiak izkutatzen ditugulako. Makilai honek naturala izan behar du eta babesarekin.

Ezpainak margotuta ala margotu gabe?
Margotuta, berez horrela ezpainak zaindu eta babesten ditugu eta.

Perfume bat:
Chanel 5.

Usain bat:
Lur bustiaren usaina.

Musika talde bat:
Egan.

Uda ala negua?
Uda, hau alaiagoa izaten baita.

Amets bat?
Jende guztia pozik bizitzea.

Udalak sustatutako etxebizitzen salmenta

ALTZAGA
AZKEN ETXEBIZITZAK!
Guztira 180m² + lorategia
Informazioa:
Lanegunetan: 943 16 21 92
Larunbatetan: Altzagako Udaletxean (10:00-13:00)

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak
San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

AUSOEGI
Urdaneta, 41
✆-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- Tximini eta egurrezko ekonomikak
- Berogailuak
- Iturgintza
- Zeramika erakusketa
- Bainuko altzariak
- Erreforma osoak

Esteban Atxa zegamarra larreko oilo

Oiloak larrean La

Lazkaoko Beneditarren granjan ikuskizun berezia dago azken aldian. Hiru mila bat oilo, inguruko larreetan ikus daitezke. Kaiolatan bosnaka edo seinaka preso egon beharrean, baserriko oiloak bezala, askatasunean bizi dira. Goizean goiz arrautzak errun eta eguna zelaietan, aske, pasatzeko aukera daukate Esteban Atxaren oiloek. Hori bai, esaera zaharrak dioen bezala, iluntzearekin batera, lotara joango dira oiloak. Era berezi honetan dabiltzan oiloek, zapore eta gustu aldetik, arrautza bereziak erruten dituzte. Momentuan behintzat, harrera ona izan du zegamarraren proiektu berri honek.



Lazkaoko praileen granjaren inguruan hiru zelai egokitu dituzte, itxitura eta guzti. Bateko belarra jaten dutenean, beste batera eramaten dituzte.

Duela urte eta erdi hasi zen Esteban Atxa proiektu berriarekin gora eta behera, bezeroek gero eta kalitate handiagoa eskatzen baitzien. *"Granja txikia gara eta beti kalitateko arrautzak lortzen saiatu izan gara. Orain dela urte batzuk, denda espezialitatuen, kalitatea zaintzen duten denden, merkatuarekin saiatu ginen arrautzak merkaturatzen. Oso gustura zeuden arrautzekin baina gehiago eskatzen zuten. Arrautza industrial hobea lortzea oso zaila ikusten genuenez, larreko oiloekin hasi ginen lanean"*. Euskal Herrian eta 500 kilometroko inguruan ez da horrelako ekimenik; Europa aldean bai.

Osasun kontrol handia

Ohiko baserriko arrautzek baino osasun kontrol zorrotzagoa daukate. Garbitasun aldetik, kontrol handia daukate. *"Osasun aldeko muga hauek guk jarri ditugu. Ponederoen garbiketak automatikoak dira, lurreko txirbila tratamentu berezikoa da... Prestigio ona daukagu merkatuan eta prestigio hori ezin genuen galdu. Produktu nahiko berezia da eta neurri sanitario guztiak gutxi dira"*, dio Esteban Atxak.

Oiloen bizimodua

3.000 oilo ditu. Aske hazitako oiloak behar izaten dira honelakoetarako, eta Zaragozatik ekarri dituzte. Normalean goizean egiten dituzte arrautzak. 8 ordu egiten dute lo. Goizeko 6etan esnatzen dira, argia orduan pizten baitie. Hamaiketarako gehienek arrautza jarrita izaten dute. Orduan, kanpora ateratzeko aukera izaten dute, iluntzera arte, leihoak irekitzen baitira. Gauez arrautzak jartzeko lekuak itxi egiten dira automatikoki, oiloak barruan egon ez daitezen eta garbi egon daitezen. Jana eta ura ere automatikoki emateko prestatua dago. Jan aldetik, pentsu berezia ematen die oilo hauei. *"Kaiolako oiloei oso pentsu ona ematen diegu, baina hauei hobea edo beste erabatekoa. Labeldun baserriko oilaskoei ematen zaien antzeko pentsua ematen zaie: %75a zereala da, eta ez dauka aditibo artifizialik. Dena naturala da. Pausoak ematen ari gara ea labeldun arrautza ematen diguten. Nahiko gogorra dago gai hori"*. Larrera ateratzen direnean, belarra eta bertako zomorroak jaten dituzte. *"Hemen beti aipatu izan dira lehengo eta baserriko arrautzak. Bada hau da, baserriko oiloak bezala, baina 12 oilo eduki beharrean 3.000 edukita"*.

Eguraldi txarra dagoenean, dena den, ez dituzte kanpora ateratzen. *"Oilo hauei berdin-berdin baitzaie bustian edo lehorrean ibili. Euskal oiloak euria egiten duenean, barrura sartzen dira. Bustitzeak ez die batere bentajarik egiten"*. Granjaren inguruan hiru zelai egokitu dituzte, itxitura eta guzti. Ba-

JUANKAR
✖ Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
✖ Parket ezartzeak
☎ 943 73 19 45 - 639 96 28 50
San Inazio, 42-2. ezk. LEGAZPI

ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
☎ 943 80 10 66
Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.
Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan
Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.
Segurako Erosle, **Idiazabalgo** Ahizpak eta **Ormaiztegiko** Iñaki Erosle.

iloen arrautzak merkaturatzen hasi da azkaoko praileetan

Estaben Atxak mimo handiz zaintzen ditu bere oiloak.

teko belarra jaten dutenean, beste batera eramaten dituzte. *"Europako legeak dioenez, oilo bakoitzeko bi metro eta erdi terreno behar da, guk hemen hiru metro dauzkagu. Hala ere metro horiek ez du ezer esan nahi. Metro horietan dena den, belarrik ez badago, alperrik da"*, azaldu digu zegamarrak.

Lehenengo egunetan, beldurtu egiten omen ziren oiloak eta ez ziren granjatik gehiegi urrutiratzen. *"Orain lotsagabetu dira"*, dio.

Arrautza ezberdinak

Kaiolako oiloen arrautzekiko ezberdinak omen dira oilo hauen arrautzak. *"Gustu ezberdina daukate. Belarraren kolorea nabari zaio, kolore berezia dauka, horiagoa da, argiagoa. Batez ere tortila egiteko oso egokiak dira"*. Arrautza hauen aurkezpena Lazkaoko San Prudentzio jaietan egin zuen, 500 kiloko patata-tortila eginda.

Oilo gehiago jartzen pentsatzen ari da Atxa, estimazio ona eduki baitute baserriko arrautza hauek, batez ere Donostia aldean. Ontzi sinplea jarri diote 'Kaseros' hitzarekin arrautza hauei, baserriko izaera mantentzearren. Ohiko arrautzak baino garestiago saltzen ari dira: dozena 280-290 pezetan. Estebanen esanetan, oilo hauen kostua, kaiolakoena baino garestiagoa da. *"Gehiago jaten dute, pentsua garestixeagoa da eta arrautza gutxiago jartzen dituzte. Eskulana ere askoz gehiago behar dute"*, dio zegamarrak.

Inbertsio handia egin behar izan du zegamarrak, eta laguntzaren bat edo beste espero dute Gipuzkoako Foru Aldunditik. Gipuzkoako agintariek ondo hartu omen dute proiektua.

Atxaren oilategia eta tortila erraldoia

Lazkaoko jaietan Esteban Atxak larrean hazitako oiloen arrautzekin patata-tortila erraldoia egin zuen. Hau ikusita Patxi Telleriak ondorengo sei bertsoak jarri zizkion.

1

Oilategiak edota granjak
bere deitura du Atxa,
egia esan ez baita broma
nagusi horrek dun martxa,
oilo ta arrautz kalitatea
âlik eta goren altxa,
gaur gizon horri jarraitutzea
pentsatu ez dela txantxa.

2

Goizez kanpora oiloak atera
sartu ilunabarrean,
barrun pentsua nai duten aina
kanpoan, berriz, larrean,
bare, karakol, txisara janez,
aztarrika indarrean,
nai duten gisan hortxe dabiltza,
ez dabiltz leku txarrean.

3

Gauzak ongi dijoazkio,
badu abilidadea,
era orretan mejoratu du
arrautza kalitatea,
saiatua ta argia izan
aurkitua du bidea,
eskuetatik kentzen diote
sortzen dun kalitatea.

4

Jakinen gainen zaudete danok
zorioneko labela,
bere elburua hauxe izanik
jendeak jakin dezela,
oilategiko mejorak orain
beti gora doazela,
granjan e oilok jarri baititu
leno baserrin bezela.

5

Iru mila ta seireun arrautza
zuringo eta gorringo,
bosteun kilo patata nâsin
hoberik ez da egingo,
eunda ogeita bost litro olio
kilo bat gatz zuen beingo,
oiek guztiak ondo ornitzen
ez dute gutxi jakingo.

6

Oilategiren nagusi ori
ain degu gizon prestua,
erriko pestak osatzen horrek
emana digun gustua,
beasaindarren erronkariei
artu zien apustua,
ardo ta ogi eta tortila
berak egin zuen gastua.

Patxi Telleria



ondoeta

✆ 943 88 31 02 - 943 88 74 51
Faxa: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Argentinako Idiazabalgo alkateak astebete egin du Idiazabalen

Miguel Angel Martinato: "Idiazabal ezagutu nuen eguna ez dut sekula ahaztuko"

Miguel Angel Martinato Idiazabalgo (Argentina) alkatea da. Beste hiru lagunekin batera astebeteko bisita egin du Idiazabala. Egonaldia bukatzear idiazabaldarrentzat esker oneko hitzak besterik ez ditu. Irailean hemendik Argentinara joatekoa den taldeari beraiei adinako harrera egitea gustatuko litzaioke. Argentinan bertan bi Idiazabalen arteko adiskidetze agiria sinatuko dute bi herrietako ordezkariek.

Miguel Angel Martinato Idiazabalgo (Argentina) alkatea bi Idiazabalen arteko adiskidetze agiria sinatzen.

Fotoetxe

- Aspaldiko ametsa bete duzu Idiazabal ezagututa...

- Hala da bai. Ilusio handiz abiatu ginen Argentinatik, Europara gentozen lehendabiziko aldia zen eta aspaldiko ametsa egi bihurtzera zihoan, Idiazabal ezagutu behar genuen. Aireportutik gentozela, errepidean 'Idiazabal' zioen lehendabiziko seinalea ikusi genuenen sinesgaitza egiten zitzaigun. Ondoren udaletxean egindako harrera oso polita eta hunkigarria izan zen. Ez genuen horrelakorik espero, uneren batean malkoek ere alde egin ziguten. Hemengo jendeak maitasun handiz hartu gaitu. Egun hura ez dut sekula ahaztuko.

- Bi Idiazabalen arteko adiskidetzea proposatu duzu, eta horretarako konpromezua sinatu da Idiazabalen.

- Lehenengo egunean, harrera ekitaldian sinatu genuen. Ondoren Idiazabalgo udalean aipatu nuena, Eusko Jaurlaritzara eta Gipuzkoako Diputaziora egin ditugun bisitetan ere aipatu diet hango arduradunei. Nik uste dut lan eginez gero etorkizunean gauza asko egiteko aukera izango dela. Proiektu bat egin beharko dugu. Lehendabiziko urratsa hala ere eman dugu eta bigarrena irailean izango da, hemengo alkatea Argentinara joaten denean. Orduan adiskidetze agiria sinatuko dugu eta denbora gutxi barru elkarlanaren lehendabiziko emaitzak ikusi ahal izango ditugulakoan nago. Etorkizunean, gazteek bidea zabalik izango dute, eta bi herrien arteko akordioa izatetik eskualdera ere hedatu daiteke.

- Gure herria argazki eta bideoan ikusita zenuen, bertatik bertara ikusi duzu orain, halakoa espero al zenuen?

- Bideo eta argazkitan ikusita nuen bai, eta herri polita zela entzuna nuen, hala ere harrituta geratu naiz. Hemengo paisaia, berdetasuna, mendiak... erabat harritu naute. Gipuzkoa guztia oso polita da.

- Nolakoa da Argentinako Idiazabal?

- Argentinako Idiazabal, geografikoki ezberdina da. Panpan dago kokatuta, hura lautada handi bat da, lur sail zabalak daude. Industriarik ez dago eta dagoen apurra egoera larrian dago. Herriak 1800 biztanle ditu, nekazaritzatik bizi da jendea han. Herri berria gara. Gure Idiazabalek 90 urte beteko ditu irailean.

- 90 urte behar izan dira beraz bi Idiazabalak elkartzeko, ez al da denbora asko?

- Egia esan, aurretik egin beharrekoa zen. Hala ere hau ez da egun batetik bestera gertatu den zerbait, Antton Irizar alkatea eta ni zortzi urte eta erdiz aritu gara honi buruz hizketan, eta orain etorri da aukera. Gu Idiazabala etorrita eta idiazabaldarrak Argentinara joaten direnean lehendabiziko urratsa emanda dagoela esan ahal izango dugu.

- Zuen herria hemengo idiazabaldar batek sortu zuen, bizi al da Demetrio Jauregialzoren ondorengorik?

- Demetrioren seme-alabek badituzte han lursailak. Bi alaba daude bizirik, Pilar eta Casimira baina gaur egun Buenos Airesen bizi dira. Lehen noizean behin etor-

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala
Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioa, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

tzen ziren beraien lur sailak ikustera, baina, orain urte batzuk ere badituzte eta denbora asko da Idiazabala azaldu ez direla.

- Argentinako idiazabaldarrek ba al dakite munduan beste Idiazabal bat badela?

- Bai, eskolan gure herriko historiaren ikerketa egiten ari dira ikasleak. Lan hori iraileean liburu batean argitara emango dugu. Liburu horretan Jauregialzotarrek herria nola sortu zuten kontatzen da. Liburua nahi duenak izango du eskura.

- Irailean egingo dituzue 90. urteurreneko ekitaldiak, nolakoak izango dira?

- Ekitaldi ugari izango da, gehienak ordea lau egunetan bildu ditugu, hemengo ordezkaritzaren bisita gure herrian izango den egunetan hain zuzen ere. Irailaren 9an, larunbata, iritsiko dira idiazabaldarrak Argentinara. Harrera egiteko, 700 lagunentzako afaria eta festa antolatu ditugu. Hurrengo egunean 'Gauchoen' kulturari dagozkion ohiturak erakutsiko dizkiegu: zaldiak domatzen... Gauchoa galduta dago baina gure herriak eutsi egin dio hainbat ohiturari. Villamariara ere joango gara, bertako Euskal Etxeak omenaldia egin nahi baitie Euskal Herriko idiazabaldarrei era berean inguru hartako industria bisitatzeko aukera izango dugu. Irailaren 12a gure herriko zaindariaren eguna da, meza, prozesioa eta herri bazkaria egingo ditugu eta hala agurtuko dugu Idiazabalgo jendea.

- Villamarian Euskal Etxea dago, beraz euskal giroa ez duzue urruti.

- Duela bi hilabete egon nintzen beraiekin, bidaiari buruz hitz egiteko. Hango gehienak Euskal Herrian izan dira aurretik eta oso gustora daude hemengo idiazabaldarrak beraien Euskal Etxera joango direla esan genienetik.

- Hemen astebete eman eta gero zein iritzi duzu jendeari buruz?

- Oso ona, hemengo jendearen izaera arrunta da, oso harrera beroa egin digute. Uneoro gauzak erakusten aritu zaizkigu, beraien ohiturak, bizitzeko modua... hemengo idiazabaldar sentirarazi gaituzte. Aukera hau aprobetxatu nahi nuke gainera idiazabaldar guztiei besarkada bat emateko. Sekula ez baikenuen pentsatu horrelako harrera egingo zigutenik.

- Argenitan zer esango duzue Idiazabali buruz?

- Kontatzeko asko dugu. Argazki asko atera ditugu... hango jendeari esateko asko daukagu. Bidai hau sekula ez dugu ahaztuko eta urte batzuk barru bueltatzea gustatuko litzaidake, nik etorri ezin badut Argentinako izaldarrak etortzea nahi nuke...

- Idiazabalgo Gazta ezagutu al duzue?

- Bai, gure asmoetako bat Argentinan gaztandegi bat jartzea da. Gure herrian ardi gazta jateko ohiturarik ez dago, piskanaka hasi beharko dugu. Hemengo gazta egileekin hizketan aritu gara eta etorkizunean Argentinan antzeko zerbait martxan jartzea gustatuko litzaiguke. Ekonomikoki ere mesedegarria izango litzateke.

Xabier Urteaga

Fotoetxe

Harrera beroa

"Bi Idiazabalen arteko adiskidetza gaur eta hemen jarri dugu abian" esaldi horrekin, Miguel Angel Martinato, Argentinako Idiazabalgo alkateak argi eta garbi utzi zuen aurrerantzean Euskal Herriko eta Argentinako herrien arteko hartuemanak arlo guztietara hedatu behar direla. *"Oraingo gazteek, etorkizunean lotura sendotu dezaten hasi behar dugu guk lanean"*. Honenbestez munduko bi Idiazabalak sekula baino gertuago daude.

San Joan egunean egin zitzaien harrera ofiziala Idiazabalgo udaletxean Argentinatik etorritako boskoteari. Txitsularien eta dantzarien agurrak ireki zien udaletxerako bidea. Abesbatzak "Agur jaunak" kantatuz hartu zituen udaletxe barruan.

Ekitaldian, Antton Irizar alkateak gogorarazi zuen, *"gaurko egunera iristeko zortzi urteko lana behar izan da, hau ez da hamabost egunean egin"*. Demetrio Jauregialzo ere gogoan izan zuten, Idiazabalen jaio eta hil zen herritar honi esker hartu baitzuen Argentinako herri batek Idiazabal izena. Miguel Angel Martinatok, hunkituta, idiazabaldarrek egindako harrera eskertu zuen. Handik ekarritako opari sorta ere eskaini zioten Udalari: bi herrien arteko lotura irudikatzen duen koadroa, eskuz egindako ponchoa (argazkian Antton Irizar Idiazabalgo alkatea jazten ari dena), larruzko erlojua eta bere txikitasunean, ekitaldi haren esanahia bere baitan hartzen zuen *pin*-a: Argentinako bandera eta Ikurriña bata bestearen ondoan.

Herritar ugari bildu zen udaletxean, argentinarrei ongietorria ematera, eta hori ere eskertu zuten bisitariek.

VIA
Alpe
MASTER
Elektragaiak
Sukaldeko altzariak
Mariaratz, 4 ✆ 88 86 84 BEASAIN

✔ Aholkularitza juridikoa
✔ Entrepresa zerbitzuak
✔ Aseguruak
GERTU ABOKATUAK
Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

Orobioneren berrikuntza

Azken plenoan, Orobione etxea birgaitzeko proiektua burutzeko lehiaketa publikorako deialdiaren oinarriak onartu ziren. Lehiaketa bidezko prozedura ireki honek tramitazio arrunta izango du. Gainera, obrak egiteko epea 18 hilabetetakoa izango da. Behin etxea birgaitu ondoren, egun Infantadoko Dukearen Jauregian dagoen Jubilatuen egoitza kokatuko da bertan.

'Izarraren bidea' erakusketa

Lazkaoko Kultur Etxean astelehenetik aurrera erakusketa berri bati eman zaio hasiera. Uztailaren 14ra bitartean iraungo du erakusketa honek 'Izarraren bidea' lemapean. Izen bereko liburutik hautatutako argazkiak dira bertan ikus daitezkeenak. Liburu honen ardatza Gipuzkoan ziren Done Jakuerako Bideen inguruko ikerketa sakona da. Liburua ere, laster eskuragai izango da. Kutxak baitu hura argitaratzeko asmoa.

Udako euskal ikastaroak

Maizpide Euskaltegiak eta Lazkaoko Udalak XXVI. Udako Euskal Ikastaroak antolatu dituzte uztailerako. Euskara bultzatzea helburutzat duten ekitaldi hauek asteartean hasi baziren ere, uztailaren 20ra bitarteko programa zabala dago prestatuta.

Uztailaren 12an, asteazkena, Koldo Ameztoy ipuin kontalaria izango da Euskadi plazan. Koldo "Lau haizetara" deritzoten ipuinei buruz arituko da, gaueko bederatzietan. Ostegunean, berriz, Oskorri taldearen emanaldia izango da. Euskal folka hain ongi bermatzen duen talde hau 21:30ean hasiko da kantatzen.

Uztailak 18, asteartea, Goierri inguruko bertsolariez beteko zaigu Lazkaoko plaza. Bertso jaialdi honetan parte hartuko dutenak honako hauek izango dira: Iñaki Apalategi, Iban Urdangarin, Aitor Sarriegi, Alaitz Saraso-la, Nerea Elustondo eta Ekaitz Goikoetxea. Eta uztaileko egitarauari amaiera emateko zein hobe Drindots taldea baino. Dena den, azpimarratu beharra dago Drindots-ek ez duela zuzenean joko, baizik eta karaoke moduko bat antolatuko duela. Uztailaren 20an izango da hori gaueko bederatzietan.

Elordi Garcia

Ekain Arruabarrena eta Emilio Sanchez Espainiako txapeldun

Lazkaon badira bai, bizikletan ibiltzerako orduan ezintasun fisiko eta psikikoak eragozpen bat ez direla behin eta berriro irakasten diguten bi gazte: Ekain Arruabarrena eta Emilio Sanchez hain zuzen ere. Oraingo honetan Asturiasen eman dute lezio ederra, bertan izan baitzen ezintasun fisiko eta psikikoen arteko Espainiako txapelketa.

Bi proba izan ziren Ekain eta Emiliok gainditu behar izan zituztenak. Ekain bietan garaile suertatu zen, eta ondorioz, Espainiako txapeldun bilakatu da. Emilio, berriz, erlojupekoan garaile izan zen, eta ez denbora eskasagatik gainera. Bigarren iritsi zenari 28 segundu atera baizizkion. Beraz, espezialitate horretan estatu mailako txapeldun bihurtu da. Ibilbidean ordea bigarrena gelditu zen.

Garaipenak garaipen, oraindik Emilio eta Ekainek ez dakite zehazki Sidneyra beraiek joango ote diren. Hala suertatuz gero, lehenbiziko aldia litzateke Paraolinpiadetan lazkaotar batzuk parte hartzen dutela. Laster jakingo dugu hori horrela izango den ala ez.

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Haurtzaindegia-ludoteka
Zabalik urte osoan zehar:
✘ Haurtzaindegia: 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
✘ Jantokia: 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
✘ Haurtzaindegi-Ludoteka: 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
✘ Kanguroak: Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.
✆ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ✆

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.
KARROZATEGIA
Hiribarren, 24 ☎ 943 88 95 83 LAZKAO

Gabiria

Aztiriko festekin jaien denboraldiari ekin

Aztiri auzoko Santa Marina jaiak izaten dira egutegian lehenengo heltzen, Alegiko Madalenak, Sanlorentzoak eta Andramarirekin jarraitzeko. Uztailaren 18 aurten asteartea denez, aurreko astebukaeran ospatuko dira ekitaldirik gehientsuenak, betiko pagopean eta ziurrenik lanbro artean, jadanik normala baita Aztiriko festetan eguraldi lainotsua eta hitsa.

Datorren ostiralean, 14an, auzo afaria izango da festen "txupinazoa", Joseba Iparragirre trikitilariaren taldearekin batera, Bentalehor jatetxean. Larunbat arratsaldeko 6etan V. patata-tortila lehiaketa, bola eta toka txapelketak izango dute tarte; gauean Trikizio taldearekin erromeria. Igandeak hartuko ditu ikuskizunik eta ekitaldirik gehienak, goiz-goizetik hasita arratsaldera arte: txistularien goiz eresia, XXII. Aztiri Igoera txirrindulari proba, Gabiriako udalari ongietorria eta meza, Goruntz dantza taldearen saioa, bertsolariak, bola eta toka... Arratsaldeko 6etan ikuskizun berezia: motozerraz egurra landuko da. Ostolaza eta Andonegiren esku egongo da giroa musikaz berotzea.

Santa Marina egunean, 18an, berriz, arratsaldean zehar haurrentzako txokolatada, gaztelu puzgarriak eta jolasak. Auzotarrek bolatan eta tokan lehiatzeko aukera ere izango dute, Alaitz Zaldua eta Xabier Elgarrestaren trikiti doinuak entzunez. Aukera polita Aizelekuren magala bisitatzeko.

Presoen aldeko ibilaldia

Iragan larunbatean pasa zen Gabiriako lurretatik, zehazki Alegi aldetik, euskal presoen eskubideak errespetaraztearen deia zabaltzeko xedea duen ibilaldia. Gure herritik igarotzean bertako zenbait erakunde eta elkartek atxikimendua eta babesa adierazi zien; besteak beste Gabiriako Udala, Goruntz Dantza Taldea, Osinalde Elkartea eta herriko nekazarien ordezkaritza ibilaldian partaide izan ziren, 100 metro sinbolikoak lekukoaren atzetik eginez.

Herri-kirolak

Herriko jai nagusietako herri-kirol saioa prestatzeko entrenamentu-saioa egingo da datorren ostegunean, hilaren 13an, iluntzeko 8etan, pelotalekuan. Proba hauek hautatu dira: koskol biltzea, txingak, korrika, zaku karrera, ingude altxatzea, trontza eta sokatira. Parte hartu nahi duen oro ager dadila.

Aimar Maiz

Doktoretza tesia

Ekainaren 30ean Mikel Aizpuru herritarrak bere doktoretza amaitzeko tesiaren aurkezpena egin zuen Gasteizko Filologia, Geografia eta Historia fakultatean. Historian lizentziatua da Mikel, eta fakultate horretan bertan da irakasle, Historia Garaikidearen sailean. Gipuzkoako abertzaletasuna aztertu du tesi-lan honetan, 'Nacionalismo vasco en Gipuzkoa. Orígenes, organización y actuación política: 1893-1923' izenburupean. Aurretik hainbat liburu eta artikulu idatziak ditu Mikelek. Lana zuzendu eta kalifikatzeko ardura zuen tribunalak 'sobresaliente cum laude' iritzi zion Mikelen lanari.

Zerain

Reflect-accion metodologia tailerrak

Ekainaren 19tik 24ra Europan egin den Refect-accion metodologia partehartzailearri buruzko lehenengo tailerra burutu da Zerainen. Ondorengo herrietako 25 pertsonek parte hartu dute: El Salvador, Bolovia, Holanda, Belgika, Erresuma Batua, Japon, Italia, Estatu Espainiarra eta Euskal Herria.

Tailerrean parte hartu dutenak euren errealitatea eta bizipinen analisitik abiatu dira eta ondoren errealitatea aldatzeko zenbait ekintza identifikatu dituzte.

Analisia botere harremanak, generoa eta kulturen arteko ikuspegitik garatu da. Azken finean, partehartzaileak, eurak, eraiki dute prozesua.

Mari Flor Mendizabal

Euskal barnetegiak

Aurten ere Harizti-eder aterpetxean, euskal barnetegi ezberdinak izango ditugu udan zehar. Uztailaren 1ean hasi eta irailera arte, 15 eguneko egonaldia egingo du talde bakoitzak eta uda honetan ere, herrian giro ederra izatea espero dugu.

Ataun

Opor giroan

Presoen aldeko ibilaldia

Euskal Herri osoa zeharkatzen ari den Euskal Presoen Eskubideen aldeko ibilaldia Atauna iritsi zen Santaixal egunean. 85en bat lagunek hartu zuten parte goizeko 10.30etan Aiako plazatik abiatu zen ibilaldian.

San Martingo plazararte dauden 8 kilometro t'erdiko distantzian, herriko talde eta elkarte desberdinetako ordezkariek eraman zuten lekukoa. Aiako Festa Komixioa hasi eta ordena honetan: San Gregorioko Festa Komixioa, Ataungo Gestorak, Ekin, Urbitarte sagardotegia, Migel Angel Apalategiren senideak, Haika, Pelotazale elkartea, dantzariak, Xabier Arinen senideak, Murkondo elkartea, Artadi, H.B., Ataungo Senideak, Aratzen senideak, Ataun-Generali Futbol Taldea, Ataungo EHNE, EHko zinegotziak eta Troskaeta tabernatik San Martingo plazara, Karlos Ioldiren bi urteko semeak eraman zuen lekukoa. Ondoren lekukoa lazkaotarrei pasatu zitzaien.

LABURREAN

Nortasun Agiria Donostian

Gobernu Zibilak jakinarazi duenez, uztailaren 1etik irailaren 30a bitartean Nortasun Agiria Donostian berrituko da. Sistema informatikoan egiten ari diren berrikuntzak medio, ez baita Beasaingo Udaletxean egiterik izango. Beraz, aipatu hiruhilabeteko tarte horretan Nortaun Agiria berritzea behar-beharrezko bazenu Donostiako bulegoetara zuzendu zaitezke. Gainerantzikoan, urriaren lehenengorarte itxaron dezakezu.

Liburutegiko ordutegia

Udararekin batera, liburutegiko ordutegiak ere aldaketak jasan ditu. Ekainaren 26tik irailaren 11rarte goizez bakarrik irekiko da. Astelehenetik ostiralera, 10etatik eguerdiko 12etarartean.

Hiru bataio eta heriotz bat

Joan den ekainaren 25ean hiru ataundar berriren bataioen berri izan genuen. Beamako Ander, Urbietako Maddi eta Zaindingo Mikel. Ongietorriak izan zaiteztela.

Bestalde, aldizkari honetako berri emaile izan zen Josune Aldaberen amonaren, Simona Etxeberriaren heriotzaren berri ere izan genuen. Doluminak, beraz sendiari.

Aitzol eta Iban Euskal Herriko Eskolarteko bertso txapelketan

Mungian zuten zita Aitzol Munduate eta Iban Urdangarinek joan den ostiralean. Gipuzkoako eskolarteko txapelketaren finalean, Goierriko taldea ordezkatuz, txapeldunorde izan zen Aitzol. Ibanek bestalde, Gipuzkoako txapela jantzi zuen Azpeitian. Hurrengo pausoa ez zen ez txantxetakoa, Euskal Herriko finala ekainaren 30ean. Baina esan behar da biek ere oso paper ona bete zutela bertan. Aitzol txapeldunorde izan zen eta Ibanek laugarren postua lortu zuen. Oholtzara igotzen lehenak gaztetxoak izan ziren. Igor Elortza zuten gai-jartzaile. *"Txapelketa baino gehiago da bertsolaritza. Bertsolaritzatik zer duzu gustokoen?"* galderari honela erantzun zion Aitzolek:

"Ezin ditugu nerbio eta
kirio denak garaitu
gure adinean saio kontuak
hain pisu handia baitu
nahiz eta askotan publikoaren
txalo artean amaitu
hori guztia atsegin arren,
txapelak itsutzen gaitu".

Saio ederra egin zuen Aitzolek eta oso pareko ibili ziren saio guztian Beñat Gaztelumendi, añorgatar txapelduna eta Aitzol txapeldunordea. Ibanek ere saio polita egin zuen eta, kontuan izanik bere lehen urtea dela handien mailan, lehendabizikoan laugarren postua lortzeak ematen digu esperantzarik datozen urteetarako. 22. orrialdean duzue Aitzol eta Ibani egindako elkarrizketa.

Agurtzane Bikuña

Mutiloa

San Pedro jaien ondorengoak

Ekainaren 29an, San Pedro egunarekin batera hasi genituen mutiloarrok aurtengo festak, eta guztiak tarte honetan kontatzea zaila bada ere esan giro ederrean burutu direla eta jende ugari gerturatu dela herrira.

Sega apustua

Larunbatean, azpimarratzekoa izan zen herriko lau gazteen arteko sega apustua. Bekotxe eta Xefe Iparre eta Zabaloren arteko norgehiagoka. Azken aldian zeresan asko sortu du herrian apustu honek, entrenamenduak, jendearen zalantzak, *"etzekiat egin ere egingo duten"*, kontua bakarrik ez zela ikusitakoan berriz apustuak eta beste hainbat eta hainbat histori.

Larunbatean han ziren lau mutilak Kaxintane aurreko zelaietan, beraien segak eskuan zituztela, eta bakoitza zegokion zorroztailearekin (zorroztaileak Luzio eta Joxe). Bazen han argazkiak atera beharra, bideoan irudirik onenak hartzeko nahia, animatzaileak eta tartean baita saio handirik ez zuela egingo pentsatzen zuenik ere.

Arratsaldeko seietan ekin zioten lanari eta sail galanta moztu ere bai lauren artean. Bekotze eta Xefek 1690 kilo moztu zituzten eta Iparre eta Zabalok 1647 kilo, 43 kiloko aldea atera zioten lehenengoek bigarrenei. Erraz esaten da!

Apusturik ere ez zen falta izan eta herriko emakumeren batek penatxoa izan behar zuen, diru kopuren bat galdu zuelako.

Kontuak kontu, zoriontzekoa da laukote honek herrian sortu duen giroa. Bero-bero geratu direnak ere badaude, beraz hasi prestatzen datorren urterako.

Patata-tortila

Honen ondoren patata-tortila lehiaketa egin zen herriko plazan, 9 bikotek parte hartu zuten eta epaimahaiak onenen artean aukera egitea zaila egin zitzaiela aitortu bazuten ere, azkenean batek irabazi behar eta bikote hori Iturriozko Jose Esteban eta bere alaba Itziarrek osatutakoa izan zen.

Tonbola

Tonbolako sari berezian atera den zenbakia 541 izan zen. Hilabetetez itxoiten da.

Bide batez jai hauetan zeharka nahiz zuzenean parte hartu duten guztiei eskerrak eman behar zaizkie. Eskerrik asko.

Iñaki Ugalde

Ormaiztegi

Lierniko erromeria igandean

Aurten ere iritsi zaigu Ormaiztegiko herritarrok Liernira erromerian joateko eguna. Ohi bezala, uztaileko bigarren igandean, uztailaren 9an, ospatuko da. Igandeko festaren aurretik, ordea larunbatean, uztailak 8, auzolanean Liernirako bide zaharra garbituko da.

Iganderako prestatuko egitaraua hauxe duzue:

10:30ean: Liernira igoera oinez herrigunetik abiatuta.

11:00etan: Salda beroa eskainiko zaie iristen direnei.

12:00etan: Meza Nagusia Lierniko amaren ermitan.

12:45ean: Haurrentzako jokoak Guraso Elkarteak antolatuta.

14:30ean: Bazkari herrikoia: Arzak eta bere taldeak prestaturiko bazkaria.

16:30ean: Gasteizko Panta Rhei antzerki taldeak eskainiriko antzezlana.

17:45ean: Lierniko IV. Toka txapelketa herrikoia Ormaiztegiko herritarrentzako. Saria Lierniko Mujika jatetxeak emango du: bi lagunentzako bazkaria egiteko txartela.

18:45ean: Sokatira lehiaketa herriko koadrilen artean. Saria: bi arkume.

Egun guztian zehar herriko trikitilariek alaituriko giroaz gozatzeko aukera izango da.

Aitziber Murua

Presoen eskubideen aldeko batzordea sortu da

Uztailaren 2an aurkeztu zen jendaurrean, Ordiziako talde eta erakunde ezberdinek osatutako Presoen eskubideen aldeko batzordea. *"Presoen eskubideen aldeko adierazpenak, mobilizazioak eta konpromezuak anitzak izan dira, baina orain, konpromezu eta inplikazio guztiak dinamika iraunkor eta eraginkorretan bihurtzeko ordua iritsi da. Horregatik presoen alde lan egiten dugun hainbat espresiok Presoen eskubideen aldeko batzordea sortu dugu"*, esan zuten bertako ordezkariek prentsaurrean. Batzordea osatzen dutenak, besteak beste, hauek dira: 125 dendari, 16 kirola, Elkarri, Komite Internazionalista eta lau kultur talde.

Batzorde berri honen ordezkariean esanetan, *"gizarte honek duen ardura eta protagonismoaz jabeturik, gure konpromezua ezinbestekoa dela iritzi dugu. Presoen eskubide guztiak defendatzeko eta azken finean herri honen hitza, erabakia eta duintasuna defendatzeko tinkotasunez ariko gara, herriko sektore gehiagoren konpromezua bilatuz"*.

Presoen eskubideen aldeko ibilaldia Ordizian ibili zen.

Euskal Herriaren hitza adierazteko hainbat eta hainbat ekimen egin direla diote batzordekideek, *"oraingo honetan Euskal Herri osoa zehkarkatuko duen martxa nazionala dugu abian"*. Uztailaren 2an bertan iritsi zen martxa nazional hori Ordiziara Aldarrikapen horrekin bat egin zutenak eta lekukoa eramanez 100 metroko tartea egin zutenak hauek izan ziren: Jakintza dantza taldeko batzordea, Irriki elkartea, Ezker Abertzalea, Zutik, Bertso eskola, Mendizale elkartea, Argi Berri elkartea, Pausogaizto eskalada taldea, Gazte asanblada, Iñaki Aierbe soinjolea, Jon Urdangarin abeslaria, Pello Ramirez musikaria, Rugbiko jokalariak, hainbat tabernari eta dendari, Jakintza ikastetxeko guraso eta irakasleak, Hilario Esnaola albaitaria, Presoen koadrilak, suhiltzaileak, AEK-ko irakasleak, jubilatuak, LAB administrazioa, Errondailako partaide batzuk, eskubaloiko jokalariak, Goierritarrako langileak eta preso ohiak.

Eugenio Irastorza

20 urte kartzelan daramazkien Eugenio Irastorza ordiziarraren askatasuna eskatzeko, hainbat ekitaldi ari dira burutzen herrian. Gaur, uztailak 7, parodia egingo da eta bihar, 8:00etan, manifestazioa.

E.R. Matxain txapeldun

XXI. Lagunarteko Futbol Txapelketak jada badu talde irabazlea. Altamira auzoko mutilak, E.R.Matxain Ileapaindegia, 1-0ko emaitzaz nagusitu zitzaizkien Morapios taldekoei. Finala nahiko paretsu joan bazen ere bigarren zatian Iñaki Insaustik sartutako gola izan zen neurketa erabaki zuena. Talde honek jokatzen zuen 3. finala izan da eta hirugarrenean bai, lortu dute txapela. Finala jokatu aurretik 3. eta 4. postuak erabakitzeko Zezilioenea Badago eta Urbitarte sagardotegia aritu ziren nor baino nor. Azken hauek 3-2ko emaitzaz nagusitu ziren. Ondoren etorri zen final handia. Hemen esan bezala E.R.Matxain nagusitu zen.

Ondoren, txapelketan parte hartutako guztiek bazkari oparoaz gozatzeko aukera izan zuten herriko pilotalekuan. Sari banaketak ere orduan izan ziren. Txapelketako jokalaririk onenaren saria Haydaos-eko Aitor Iciar-entzat izan zen, goleatzaile nagusiarena Urbitarteko Aitor Martinez De Olkoz-entzat eta finaleko jokalari onenaren trofeoa Iñaki Insaustik jaso zuen.

Aitor Calvillo

San Fermin zozketa

Uztailaren 7a ere hementxe daukagunez gogoratu Txindoki Tabernak antolatzen duen San Fermin Zozketa famatua egingo dela aipatu egunean. Antolatzaileak gustora daude bertaratu diren ia gehienek eraman baitute beraiekin boletoren bat. Hasierako prebisioak hautsiz, aurten ere salmenta errekor berria lortu dute. Pozik izango dira San Jose egoitzakoak, gogoratu biltzen den diruaren %10a beraientzako dela. Gainontzekoa saritan banatuko da. Saridunak izan diren zenbakien zerrenda Etxezarreta Kalean dagoen Txindoki Tabernan bertan egongo da jarrita.

Altamirako jaiak

Otegi Eneako festak amaituta Altamirakoei zegokien txanda oraingoan. Dena den, antolakuntzan izan diren aldaketa batzuk direla eta aurten jaiak ez ospatzea erabaki dute. Datorren urtean jarraipena izango dutela ziurtatu dute baina antolatzaileek.

Jai nagusiak bertantxe

Dagoeneko somatu daiteke herrian Jai Nagusiak heltzear daudela. Ez da asko falta Santa Ana egunerako eta herriko koadrilak hasiak dira dagoeneko matutinarako mozorroa prestatzen, koadrila egunerako musika taldea enkargatzen, danborradarako entseiuak egiten... Jai Batzordeak ia prest dauka egun horietarako egitaraua eta bertan aipatu beharrekoa zera izango da, ohikoaz gain zezenak izango ditugula aurtengoan anexo futbol zelaian. Herrian zeresan asko emango dituen ekitaldi hau Santiago egunean izango da. Bestalde, Txozna Batzordeak ere prest dauka festetarako egitaraua. Izango duzue guzti honen berri zehatzagoa hurrengo alean.

Muskildira bisita irailean

Idiazabal eta Muskildiren artean hasitako hartuemanak atal berria izan zuen aurreko larunbatean, uztailak 1. Zuberoako 25 lagun etorri ziren egunpasa egin eta Idiazabal ezagutzera. Maiatzean bertara joandakoek egin zieten harrera eta herriko bazterrak ikusi zituzten elkarrekin: Ondramuñoko gaztandegia, Txomenaneko parkea, Kultur Etxea, Herri Eskola.

Elkarrekin bazkaria egin eta kantuan aritzeko modua ere izan zuten. Baita Iparraldeko lagunek ekarritako ardoa, gazta eta patea dastatzeko aukera ere. Bateko zein besteko ordezkariek irailerako jarri zuten hurrengo hitzordua. Iraileko bigarren asteburuan ospatuko dira Muskildiko festak eta ordurako idiazabaldarrak bertara joango dira. Egunpasa, edo behar bada asteburua pasatzeko modua ere izango da. Muskildikoek festetako egitaraua eskuartean dutenean Idizabala helaraziko dute eta orduan erabakiko dira bidaiaren nondik norakoa.

Xabier Urteaga

Eskolarteko Emakunde Lehiaketa

1999-2000 ikasturte honetan Pareko Proiektu Europearraren barnean kokatu den IV. Eskolarteko Emakunde Lehiaketak badu irabazlea. Lehen Hezkuntzako 6. maila bitartekoen artean Aita Iparragirre Herri Eskolako 5. mailako ikasleek eskuratu dute lehen saria, 100.000 pezetako diru poltsa. Saria Txaro Arteagaren eskutik jaso zuten. Epaimahaikoen iritziz, lehian, partaide ugari izan da eta lanen kalitatea haundia.

5. triatloia hilaren 27an

Udarekin batera hasi zen Uda 2000 kanpaina, eta uztailaren 27an egingo den triatloiarekin bukatuko da Kiroldegiko ikasturtea. Bosgarren edizioa du aurten Triatloiak. Igeri, Korrika era Bizikletan osatu beharko da ezarritako ibilbidea. Horretarako 3 lagunez osatutako taldeek eman dezakete izena Kiroldegian uztailaren 21a baino lehen. Parte hartzeko baldintza bakarra 14 urtetik gora edukitzea da.

Tenis txapelketa

Tenis txapelketaren hirugarren ekitaldia astelehenean hasi zen. Uztailaren 21 bitartean jokatuko dira partidak kiroldegi kanpoaldeko tenis pistan, arratsaldeko 6,30etatik aurrera.

IDIAZABALEN TXALET ADOSATUAK
ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN



- 3 logela.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza, lorategia.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.

686 414 901 - 943 450 721

INMOBILIARIA adarra
ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

Zaldibitarrak jairik jai

III. Gazte Festak

Datorren asteazkenean hasi eta ostirala arte III. Gazte Festak ospatuko dira Zaldibian. Herriko Gazte Taldeak Euskal Herriaren eta, batez ere, gazteen arazoei buruzko aldarrikapenak egiteko aprobetxatuko ditu, gainera, jai egunak. Egunari goizetik heldu eta egunsentira arte luzatzeko, egitarau bete-betea dakarte oraingoan zaldibiar gazteek.

● **Asteazkena 12: Euskal presoen eskubideen aldeko eguna:**

12:00etan: txupinazoa eta poteoa.

16:00etan: musa, ping-ponga eta partxisa.

17:30etan: herri kirolak.

22:00etan: filmina emanaldia.

Ondoren, Haika, Ehe eta Zgt taldeek deitutako manifestazioa. Ikur-hitza: Euskal preso eta errefuxiatuak etxera.

● **Osteguna 13: Bizi baldintza duinen aldeko eguna:**

9:00etan: mendi irteera Gaztelura.

16:00etan: kafe tertulia. Gaia: bizi baldintzak.

18:30etan: sukaldari txapelketa. Prestatu beharreko jakiak: entsalada mixtoa eta patata tortilla-

19:00etan: III. Sasi pilotari txapelketaren finala.

21:00etan: afaria.

Afalostean parodia.

Goizaldera arteko parrandan ezustekoren bat ere izango omen da.

● **Ostirala 14: Euskararen eguna:**

15:00etan: euskararen erabilera eskasa dela eta, egunkarietara gutunak idatziko dituzte.

16:00etan: solasaldia. Gaia: euskararen ofizialtasuna.

19:00etan: poteoa herriko tabernetan trikitilari eta bertsolariekin.

21:00etan: herri afaria.

Afalostean: bertsolariak eta bertso parodia.

Saroi Jauregi - Iñaki Gurrutxaga

Beti-Gaztekoen eskurtsioa

Beti-Gazte elkartetik, uztailaren 18rako eskurtsioa antolatu da, Ondarroa aldera. Zestoan izango dute bazkaria. Txartelak banatzen uztailaren 8an hasiko dira.

Arrantza txapelketan 10 partaide

10 lagunek hartu zuten parte arrantza txapelketan, hiru mailatan banatuak. Infantiletan 5 lagunek hartu zuten parte; alebinetan 2k, eta benjaminetan 3k. Guztira 51 amuarrain arrantzatu zituzten. Irabazleak hauek izan ziren:

Infantiletan, Igor Arrese (6 amuarrain).

Alebinetan, Aitor Ordozgoiti (12 amuarrain).

Benjaminetan, Erik Armendariz (3 amuarrain).

Txamarretxeko festa

Gazte festekin ez dira amaituko, ordea, festak Zaldibian. Larunbatean, uztailak 15, Txamarretxen izango da festa, urtero bezala. Txamarretxeko auzokideak ere ez dira motz geratu egitaraua prestatzerakoan.

17:00etan: haur jolasak

18:30ean: Goiztiri txaranga

19:00etan: Toka txapelketa (parte hartzeko auzoan bertan eman behar da izena, 18:30etatik aurrera)

20:00etan: Iztueta dantza taldea

20:30etan: Lopategi eta Azpillaga bertsolarien saioa

21:00etan: afaria Arrese jatetxean

23:00etan: erromeria jatetxearen aurrean, Epelde, Larrañaga eta Begiristainekin.

Aurten ere, arratsaldean, Arrese jatetxeak emandako ardoa eta gazta izango da inguratzen diren guztientzat.



Euskara ikasleei diru-laguntzak

1999ko irailetik 2000ko abuztura bitartean, edozein mailatako Euskalduntze-Alfabetatzeko Euskara-ikasketak Euskaltegiren batean (Udal Euskaltegietan salbu) egin dituzten edo egiten ari diren 16 urtez goitiko ikasle beasaindar guztiek, diru-laguntza eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte Udaletxeko Harrera-bulegoan, azaroaren 30era bitartean. Ikastaro horiek Iraleren edo Udal Euskaltegiaren laguntzarik izan badute edota Administrazioak antolatutako Ikastaroak izan badira, ez dute diru-laguntza hau jasotzerik izango.

Laguntzak, ondorengoak izango dira: %50a langabetu txartela ekartzen dutenentzat; eta %33,33a gainerako guztientzat.

Eskatzaileak, klase-orduen %80etara joan izana frogatu beharko du ibili den Euskaltegiko agiriaren bidez eta Beasainen erroldatua egon. Agiri hauek aurkeztu behar dira: matrikula-ordainagiriaren fotokopia; euskaltegiko agiria, klase-orduak, asistentzi orduak eta ikasketa-maila adieraziz; NAren fotokopia; langabetu txartelaren fotokopia, egoera horretan daudenek; eta kontu korronte zenbakia.

III. Igartza beka: 11 lan

Udalak, CAF enpresarekin eta Elkarlanean argitaletxearekin elkarlanean antolatu duen III. Igartza literatur sorkuntzarako bekara 11 proiektu aurkeztu dira. Denak ere, 35 urtez behetikoak izaki, bi liburu baino gutxiago argitaratuak dituzten idazleek aurkeztu dituzte. Orain, Aingeru Epaltza, Jasone Osoro eta Xabier Mendiguren Elizegi epaimahaikideek, bekaren irabazlea aukeratu beharko dute irailaren 10erako eta ondoren, aukeratuak, sariaren erdia jaso eta gehienera ere urtebeteko epean burutu beharko du bere lana. Idazlana entregatzean jasoko du sariaren beste erdia.

Birziklatzeko 710.109 hondakin beasaindarron artean

Birziklatzeko hondakin kopurua igo egin da Sasieta Mankomunitatean. Beasaini dagokionean, 254.540 kilo beira, 74.679 kilo ontzi eta 380.890 kilo paper bota genituen birziklatzera iaz. Guztira, 710.109 kilo hondakin. Biztanleko bildutako kopurua berriz honokoa da: 20,6 kilo beira, 6,1 kilo ontzi eta 30,9 kilo paper. Guztira, biztanle bakoitzak birziklatzeko 58 kilo hondakin bota genituen beraz.

LABURREAN

Estaligabeko igerilekuak

Irailaren 15era bitarte irekita izango ditu ateak estaligabeko igerilekuak 12:00etatik 20:00etara. Haurrek 300 pta ordaindu beharko dute eta helduek 500 pta. Kirol txartela dutenek berriz doan izango dute sarrera.

Nortasun Agiririk egiterik ez da izango Beasainen urrira bitarte

Irailaren 30 arte ez da Nortasun Agiririk Beasaingo Udaletxeko bulegoetan egingo. Dirudienez, informatikako aplikazio berri bat jartzen ari dira, aldez aurretiko zita saihesteko, era honetan, dokumentua bisitaldi batean bakarrik egiteko aukera izango delarik. Uztaila, abuztua eta iraileko zitak dituzten pertsonek edo nortasun agiria ateratzeko premia handia dutenek, Donostiako bulegoetara jo beharko dute edo bestela urrira arte itxaron.

Bi herritar sarituak Oñati Literatur lehiaketan

Beste behin ere, herritar gazte batzu aipagai ditugu literatur alorrean. Oraingo honetan, Igor Aristegi eta Ekaitz Goikoetxea beasaindarrak sarituak izan baitira I. Oñati Hiria Literatur lehiaketan, poesia eta bertso ataletan.

Mahai-teniseko txapelketa

Beasain hiriko I Mahai-teniseko txapelketa jokatuko da bihar, uztailak 8, Antzizar kiroldegian. Goierri mailako jendea izango da bertan eta neska eta mutilak zaku berean sartuko dituzte taldeak osatzeko egingo duten zozketan.

Odol ateratzea

Beasaingo Odol Emaileen Delegazioak jakinarazten du, hurrengo odol ateraldia uztailaren 26an egingo dela, Urbi-etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emaileez gainera, berriren bat animatzen bada, bertara azal dadila.

Nekna Altuna

Zegama

Aizkorriko Lagunen egunak partehartze handia izan zuen

Goizeko 7etan 120 pertsona bildu ziren Zegamako plazan. Ikurriña eta Zegamako ikurriña Alkateak jaso ondoren, abitu ziren mendian gora.

Zenbait jende, ibilaldi ofiziala lutzetxo irudituta, Aldaola inguruetatik abiatu ziren. Meza 11:30etan eman zuen Aita Arantzadik, Aizkorritik zetozenei itxaron eta gero eta ondoren Udalak ipinitako hamaiketakora hurbildu zen jendea.

13:45etan, Pako Iriondoren eskutik, Euskal Mendi Federakundeko Lehendakaria, Gurutze Santuko Ermitan mendizale guztiak bildu eta herrira sartu ziren, ondoren Pako Iriondori merezitako omenaldia eskaini zitzaion. Gorrotxategitarrei ere Udalak, guztien izenean, bere eskerrona agertu zien, 1934. urtean bere familikoek emandako laguntzarengatik Aizkorriko baseliza eraiki zedin.

Lagunarteko bazkarian, Euskal Herriko bater guztietatik etorritako 210 pertsonek parte hartu zuten, horien artean zeudelarik herritarrak ere. Mendizale ezagunen artean Juanito Oiarzabal ere, bere emazte eta semetxoarenkin, bai Aizkorriko Lagunen Elkarteko sorrera ekitaldian, bai Pako Iriondoren omenaldian eta baita lagunarteko bazkarian ere.

Orohar, egun ahaztezina zegamar eta Aizkorrizale guztientzat.

Aizkorriko Lagunen Elkarteko bazkide izan nahi duenak dei beza 943 801351 telefonora edota Zegamako Udaletxera.

Aizkorriko Lagunen Elkarteko kamisetak salgai daude bai Udaletxe eta baita Zegamako tabernetan ere. Lerro hauen bidez, bere laguntza eskertu nahi dielarik Zegamako Udalak eskainitako laguntzarengatik herriko tabernariei. Bazkaria Zegamako Ostatutik eman zen.

Eskulanen tailerren afaria

Ikastaro bukaerako urteroko afaria izango da uztailaren 15ean. Izen ematea, Ostatu jatetxean.

Zankodunen ikastaroa

Uztailean zehar, zankodunen ikastaroa emango da Kultur Etxetik antolatuta. Bertan parte hartu nahi duenak, izena eman beza Udaletxean uztailaren 12 aurretik.

Arrieta Haundi nekazalturismoa

Azken boladan nekazalturismo hau itxi denaren kontua ahoz aho dabilela eta, bertako arduradunek adierazi digute, ez dutela itxita eta ezta isteko asmorik ere, beraz, ohar hau izan bedi argigarri.

Barrenaldeko bazkaria

Aurten Barrenaldeko bazkaria uztailaren 22an izango da. Izen ematea uztailaren 14an, 18:00etatik 20:00etara, Arrigetxen (943 801116).

Udala eta Guraso Elkartearen arteko hitzarmena

Udala eta Guraso Elkarteak hitzarmen bat sinatu dute, honen bidez, Guraso Elkarteari 240.000 pztatako aparteko dirulaguntza emango zaiolarik San Martin jaien barnean haurrentzat ekitaldiren bat antola dezan. Ekitaldi honen helburua, haurrek ongi pasatzeaz gain, ekintza berriak antolatu ahal izateko dirusarrera gehiago lortzea delarik.

Pregoi idatziaren II. lehiaketa

Iaz Kultur etxetik hasi zen lehiaketari berriro ere helduz, II. Lehiaketa martxan jartzeko garaia da. Pregoi idatzi bat prestatzea da helburua, 2-5 minutu bitartekoa. Gaia: San Bartolome jaiak. Forma aldetik, librea da, prosa nahiz hitz lauz, olerki edo bertsotan. Saria 15.000 pezetako izango da. Zegamarra izatea baloratuko du epaimahaiak. Uztailaren 20aren aurretik aurkeztu beharko dira lanak, kartazal itxi batean, barruan ezizen bat sartuz. Beste kartazal batean, egile edo egileen izen-abizenak eta telefonoa sartu behar dira, azalean ezizena jarriz.

UEUra joateko dirulaguntzak

Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzen duten zegamarrek dirulaguntzak izango dituzte. Udalak onartu duen Araudia dela eta, Euskal Herriko Unibertsitatean Udako Ikastaroak egiteko dirulaguntza ematea arautzen duena, Zegaman erroldaturik dauden eta Udako ikastaroan parte hartzen dutenek dirulaguntzak izango dituzte. Dirulaguntza matrikula gastuei aurre egiteko eta garraioari lotuko zaio batez ere. Informazio gehiagorako jo ezazu Udaletxera.

Ubideratze lanak

Olaran erreka eta Oria ibaian uholdeen aurkako ubideratze obrak burutuko dira. Ekaiaren 26ko Gobernu Batzordean, onartu ziren aipatutako bi proiektuak, hauek Sestras S.A. Enpresak idatzi zituelarik. Proiektuaren finantziazioari Zegamako Udalak egingo dio aurre. Aurrikusitako obrak 173 milioiko kostua izango dute eta Udalak egindako gestioak direla bide, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiaren artean finantzatuko da obra guztia.

Edurne Albizu

Goierriko Trikizio musika taldeak egin du aurtengo Nafarroa Oinezeko kantua

Aurreko alean aurreratu genizuen bezala, Goierriko herri ezberdinetako gazteek osatzen duten Trikizio musika taldeak egin du aurtengo Nafarroako Ikastolen aldeko festaren kantua. 'Oinez buru belarri' da kantuaren izena eta erritmo ezberdinez osaturiko kantua egin dute.

Bost lagunek osatzen dute taldea: Oihane Arratibel gabiriarrak, baxua jotzen du; Maider Redondo ordiziarrak panderoa eta ahotsa; Idiazabalgo Iñaki Telleriak bateria; Arrasateko Koldo Altuna gitarra; eta Xabier Arakama zegamarrak trikitia. Azken honek, Iruñean Bianan, Ormaiztegin eta Gabirian ematen ditu trikiti klaseak.

1997an hasi zen Trikizio taldea baina eten bat izanda, 1999ko udaberrian heldu zioten serio berriz ere Trikiziori. Izen bera mantentzen badute ere, musikari gehienak berriak dira eta musika bera ere ezberdina egiten dute. Entseiu lekua Zegama dute, nahiz eta horretarako denbora gutxi eduki.

Xabier Arakamak Iruñean trikitixa erakusten du eta bertan sortu zitzaien kantua egiteko aukera. *"Iazko ekainean San Fermin Ikastolako festan jo genuen eta gustatu egin zitzaien. Nafarroa Oinezeko kantua egiteko prest ote geunden galdetu ziguten. Beste musika talde batzuk ere bazeuden Ikastolan eta guztiei eman zitzaien aukera. Lau talde aurkeztu ginen aukeraketara eta gurea aukeratu zuten"*. Nafarroa Oinezeko kantuaren hitzak Anjel Mari Peñagarikano bertsolariarenak dira.

Izugarrizko lana eman diote kantua moldatzeak. Guztien artean egin dute kantua. Antolatzaileek erraza, eraskorra, alaia eta sinplea izan zedin eskatu zioten. Kantua nolakoa den galdetu diegu: *"sarrera tronpetarekin dauka. Tronboia, saxoa... Beste zati bat, perkusio eta txalapartarekin. Sanba antzeko erritmoa du hasieran..., bakailao erritmoa..."* baina Xabierrek ez daki zein estiloko doinua den definitzen. *"Mugitua da. Lehena eta oraina uztartzeko alboka sartu diogu, bakailao erritmoan"*. Joseba Tapia trikitilariak ahotsa jarri du zati batean eta ikastolako ikasleek beste batean.

Txalapartariak beste bi goierritar izatekoak ziren, Beasaingo Zador Gaztañaga eta Igor Rezola baina grabaketa eguna ondo ez zetorkiela eta, azkenean beraiek moldatu dute.

Nafarroa Oinezeko hainbat kantu ezagun egin dira oso. *"Horretarako kantu egokia egin behar da. Beste kantu batzuk hor pasatu dira. Horren zain ezin gara egon"*, dio zegamarrak.

Irratietan hasi da kantua entzuten. Nafarroa Oinezeko materiala saltzen den lekuetan ere eros daiteke. Diskoan bi kantu daude: lehenengoa kantu ofiziala eta bigarrena, musika doinua bakarrik, haurrek karaokean kanta dezaten.

Gazteentzako musika

15-25 urte bitarteko musika jotzen dute Trikiziokoek, gainerakoak baztertu gabe, noski. Beste taldeen abestiak jotzen dituzte gehienbat. Beraien kantuak badituzte baina entseiatzeko denbora gutxi dute eta landu beharrean dauzkate. Gainera, *"zaila izaten da ezaguna ez den talde batek bere kantuak jo eta onarpen ona izatea"*, dio Xabierrek. Gitarra elektrikoa asko sartzen dute.

Nafarroa Oinezeko kantua grabatzea esperientzia ona izan da Trikiziokoentzat. *"Ikusi dugu estudio batera ezin dela gauzak airean ditugula joan"*. Gustura aterako lukete taldearen diskoa baina entsaiatzeko denbora gutxi daukate. *"Horretarako asko entsaiatu behar da eta kantuak atera. Ahal izanez gero datorren urteko otsaila alderako diskoa kaleratzea ondo egongo litzateke"*.

Hobbya da musika taldea gazte hauentzat. Xabier Arakamak aitortu digunez, *"pertsonalki pentsatzen dut, kasualitatez, fama hartuko bagenu eta urtean ehundik gora kontzertu emanez ibili, ez litzatekeela ona izango. Eszenatokian ondo pasatzen ez dudan momentuan, diruagatik bakarrik jotzen dudan momentuan, utzi egingo nukeela uste dut. Lana eta hobbyaren arteko zerbait da eta diruarengatik bakarrik joango bagina nabarituko egingo litzateke"*.

Atzerrian ibiliak

Taldeak nahikoa historia laburra badu ere, taldekideek atzerrian urratu dute beraien ibilbidea. Maider Redondo eta Xabier Arakama duela bi urteko udan Estatu Batuetako Euskal etxeetan izan ziren eta iazko udan izan zuen talde osoak San Frantziskora eta Los Angelesera joateko aukera. Bi taldekidek ezin izan zuten joan eta azkenean joan gabe gelditu ziren.

Holandara joateko aukera ere badaukate. Xabier Arakama trikitilaria bi aldiz izan da urte batean Iñaki Larrañaga lehengusuarekin eta bigarren urtean Maider Redondo neskalagunarekin. *"Nahi genuenean joateko esan ziguten, kontzertuak antolatuko zituztela. Baina astia behar da, eta hamar bat egun libre"*.

2 goierritar txirrindulari

Josi Garmendia: Quebrantahuesos proban 5.

Josi Garmendia, 24 urteko ordiziarrak, bosgarren egin zuen zikloturistentzako Sabiñanigoko 'Quebrantahuesos' proban. Ekainaren 17an jokatu zen lasterketa eta Espainia mailan probarik garrantzitsuena da; eta Europako hirugarren garrantzitsuenetarikoa. 4.500 txirrindulari atera ziren irteera puntutik, guztiak ere helburu ezberdinekin. Batzuk aurrean ibili eta lasterketa irabaztera joan ziren, besteak norberaren denbora hobetzera eta beste asko, proba bukatzera. Euskal Herritik txirrindulari asko joan ziren, gehienak gipuzkoarrak. Sailkapeneko lehenengo bost postuetan hiru gipuzkoar gelditu ziren.

Konparaketa bat egitekotan, korrikalarientzako Behobia-Donostia lasterketak adinako ospea dauka zikloturistentzat Quebrantahuesos probak. Hainbeste jendek parte hartzen duenez eta Josi sailkapenean aurrean ibiltzeko helburuarekin joan zenez, irteerara ordubete lehenago joan zen, leku egokia hartzearren. *"Irteera baino aurrerago jartzen direnak badaude, baina gero lasterketan sartzerakoan arriskua sortzen da. Aurten kontrol bat pasatu arazi digute eta dorsalean marka egin. Dorsalean marka hori ez daukana sailkapenean ez da atera-*

Josi Garmendia txirrindu gainean ibiltzeaz gain, Muebles Ordizia talde jubenileko zuzendaria ere ba da.

tzen, irteeratik ez direla atera adierazten baitu. Datorren urterako txipa jartzea ari dira pentsatzen, irteeratik pasatzean hasiko litzateke denbora kontatzen", esan digu Josi Garmendiak.

207 kilometro

Sabiñanigo-Sabiñanigo proba izaten da Quebrantahuesos, 207 kilometrokoa. Sonportetik Frantzia aldera, han Mariblanc igo eta Portaletetik Sabiñanigora, tartean bi kilometroko aldapa gogor bat igoz. 5 ordu eta 59 minutuan egin zuen ibilbidea ordiziarrak, sailkapenean 5. postua lortuz. Orduko 34,5 kmko bataz bestekoa egin zuen Josi Garmendiak. Oso maila handiko proba omen da.

Joaterako bazekien ondo zegoela. *"Bizikletan ez naiz asko ibili, 4.500 kilometro bakarrik eginda joan nintzen, denbora gutxi baineukan. Baina korrikan asko ibili naiz. Ondo ibiltzea espero nuen baina ez neukan garbi. Beldurra ere baneukan, lehenengo aldia baitzen proba honetan parte hartzen nuela. Berako Indurain proban, Segoviako Periko Delgado proban... parte hartua naiz eta ondo ibili nintzen"*, aitortu digu.

Urte batzutan esan izan da korrika egitea eta txirrinduan ibiltzea ez direla ondo uztartzen. Josiren kasuan ez da horrelakorik demostratu.

Ziklo-kirolaria

Zikloturismoaren izaera lehiaketarik egin gabe bizikleta ibilaldiak atsegin hartzeko egitea denez, Josi ez da zikloturista sentitzen. Ziklokirolaria izen berriaz bataiatzen du bere burua. Hau da, lehia helburu duen federatu gabeko txirrindularia. Alikante eta Katalunia aldean ziklo-kirolarientzat karrerak omen daude, lehiatzera irtetzen diren txirrindu zaletuentzat.

Txirrindulari federatu izandako da Josi Garmendia. 14 urterekin hasi zen eta afizionatuetan 3 urte egin zituen. Ikasketei lehentasuna eman eta utzi egin zuen txirrindularitza. Orain ikasketak bukatu ditu eta berriz ere heldu egin dio txirrinduari, *"gustatzen zaidalako, hobby bezala"*.

Dena den, orokorrean, kirola egitea gustatzen zaio. Korrikan ibili da azken aldian dexente, lanaren ondorioz txirrinduan ibiltzeko denbora gutxi izan duelako. Korrika eta txirrindua uztartuz, duatloiean ere parte hartu izan du. Oñatikoa egin du eta 4. egin zuen. *"Txirrinduan oso ondo ibiltzen naiz baina korrika ez hain ongi. Txirrindu proba bukatu eta korrikan hasi nintzenean, lehenengo nindoan, baina bukatu 4. Maila handia dago korrikan"*, dio Josik.

KEMEN KIROLAK
Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

Goierri bus
Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak
Literadunak komunarekin
Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua
Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 58 70

2 zikloturismo proba ezberdinetan

Alvaro Villa: Paris-Roubaixeko abenturan

Alvaro Villa, 25 urteko lazkaotarrak, txirrindulari profesionalenartean hain ezaguna den, baina hemengo zikloturistentzat hain ezezaguna den Paris-Roubaix proban parte hartu zuen ekainaren 4an. Txirrindulari profesionalek egiten duten ibilbide bera egin behar izaten dute, baita bide adokinatuetan barrena ere. 276 kilometroko ibilbidea da. 1800 lagun inguruk parte hartu zuten, 35-45 urte bitartekoak gehienak, eta %60ak bukatzen omen du lasterketa. Alvarok 9 ordu eta 15 minutuan bukatu zuen. Eguraldia lagun izan zuen: 17 gradu eta lainotua. Baina aurreko egunean euri asko egin zuen eta lokatza zegoen, putzuak ere bai.

Laisterketari buruzko informazioa lortzea dexente kostatu zaio Alvarori, hemen ez baitago bertara joateko ohiturarik. Inskripzioa egitea ere nahikoa konplikatua omen da. *"Postaz egin behar da izen ematea. Paper dexente egin behar dira"*.

Adiskidetasun handia

Bakarrik joan zen Alvaro Paristik 80 bat kilometrora dagoen irteera puntura. Goizeko 4etatik 7etara bitartean ateratzeko aukera izaten da, bakoitzaren nahiaren arabera. Lazkaotarrak goizeko 6etan ateratzea erabaki zuen.

Alvaro harrituta gelditu zen lehenengo momentutik. *"Hasieran uste nuen hemengo zikloturismo lasterketetan egoten den lehiakortasun hori egongo zela baina irteera goizeko 4etatik 7etara bitartean egin zitekeela jakin nuenean, horrela ez zela izango ikusi nuen. Ni goizeko 6etan abiatu nintzen, beste 30-40 lagunekin batera"*. Inor ez zuen ezagutzen, frantziarrak eta italiarrak ziren gehienak, baina adiskidetasun handia zegoen. Erreleboak denek ematen zituzten, arazoren bat ote zegoen geldetzen zuten... Jendea ezagutzeko aukera izaten omen da horrelakoetan. Italiar batekin egin zituen kilometrorik gehienak eta hurrengo urtean Milan-San Remo proban parte hartzeko animatu zuen. Martxoan izaten da, 290 kilometro, baina Alvarok ez daki nola ibiliko den entrenatzeko.

Paris-Roubix korritu eta etxeraino txirrinduz etorri ondoren, Quebrantahuesos-en ere parte hartu zuen Alvarok.

Abentura

Ondo antolatua omen dago proba. Lau bat lekutan masajeak hartu, jan, edan eta bizikletak garbitzeko aukera izaten da. Hala ere, benetako abentura omen da Paris-Roubaix lasterketan parte hartzea. Adokinezko 25 tarte ezberdin daude ibilbidean. *"Ikusi egin behar da zein leku den egokiena pabeetan joateko. Batzutan belarretatik, lokatzetan joatea egokiagoa da eta txirrindulari bat bide okerragotik pasatu beharrean bere atzetik jarraitzea. Harri tarteko lehenengo 4 zatietan gozatu egiten da baina bukaerara iristeko oso gogorra da, eskuetan mina sentitzen hasten baitzara. Bukaerarako eskua ireki ezinda gelditzen da. Bi asteean eskuetako mina izan dut. Hainbeste boteren ondoren ikusten ez duzun irudipena izaten da..."*, dio Alvarok.

Bizikleta prestatua eraman zuen lazkaotarrak, kubierta lodixeagoekin, 23 milimetrokoak, eta manilarra zinta bereziz babestua, golpe txikiagoa sentitzeko. Hala ere, eskuetan babak atera omen zitzaizkion.

Gogorra eta luzea egiten omen dira adokin bideak. Pentsa, bizikletaren koadroa puskatuz gero! Halaxe gertatu zitzaion Alvarori. Baina zortea bere alde izan zuen. Kasualitatez, gurasoak zeuden leku horretan. Bizikleta aldatu eta aurrera jarraitu zuen.

Paristik Lazkaora pedalei emanez

Paris-Roubaix proba bukatzea nahikoa ez eta Bretañan buelta bat eman ondoren, Paristik etxera txirrinduan etorri zen Alvaro. Datorren urtean Italiari itzulia emateko asmoa dauka.

Betidanik ibili izan da Alvaro txirrinduan, beti hobby bezala. Lehiatzen ere ibili izan da gaztetan, baina ikasketei eman zien lehentasuna. Urteen ondorioz, erresistentzia handitzen omen da. *"Proba luzeak gustatzen zaizkit, abentura bezala hartzea. Txikitatik ikusi izan dut proba hau profesionalek korritzen eta hemen inguruan horrelako biderik ez dagoenez, beti eduki izan dut proba honetan parte hartzeko gogoa"*.

Goierritar zikloturistak proba honetan parte hartzera animatu nahi ditu Alvarok, bera prest dago nahi duenari informazioa emateko. *"Merezi du"*, dio.

Ekaina hasieran izaten omen da lasterketa. Dena den, aurtendik aurrera, Paris-Roubaix proba bi urtean behin jokatuko da. Aukera ezberdinak daude. Bakoitzaren neurrira egokitzen da, kilometro gehiago edo gutxiago eginez, lau irteera puntu baitaude. 276, 180, 120, 80 eta 30 kilometroko ibilbideak egin daitezke. Saririk ez da egoten bukaeran, sailkapenik ere ez. Oroigarri bezala adokina eta diploma ematen dituzte. Saririk onena, bukatzeak ematen duen poza.

Aitzol Munduate eta Iban Urdangarin ataundarrak:

Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari txapelketa finalean

Aitzol Munduatek 14 urte ditu eta aurten izan du azken urtea txikienean mailan. Iaz bezala, aurten ere bigarren egin du. Iban Urdangarinek 15 urte ditu eta aurten izan du lehen aldia handienen mailan, Gipuzkoako txapela irabazi ondoren. Laugarren egin du.

Ekainaren 30an jokatu zen Mungian Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari txapelketa. Ataundarrak gustura gelditu ziren bakoitzak bere mailan egindako saioarekin. Aitzol dena den, urduri samar aritu zen. Iban lasai aritu omen zen, nahiz eta aitortu digun gai xelebreren bat egokitu zitzaiola, ez omen zuen ulertu. Hainbeste polemika sortu duen historia liburuen gaia jarri zioten. *"Ez nekien zertaz ari ziren, inork ez zekien ezer. Hala ere bota nuen zerbait"*. Ibanek Aitzoli buruz esan digunez, *"ez zitzaion ezer falta izan txapela irabazteko, berdintsu aritu ziren. Baina Aitzol urduri jartzen da"*.

Iban 15-18 urte bitartekoen mailan aritu da aurten lehenengo aldiz. Ezberdintasunik nabaritu al duen galdetu diogu: *"Ni gusturago aritu naiz. Txikitan bertso bat bota eta bat hori gaizki botaz gero, dena izurratzen duzu eta taldekako txapelketa denez, taldeko lana ere bai. Ardura gehiago izaten da. Handietan, norberarena egin eta kitto. Bertso gehiago bota behar dira handietan eta gusturago aritu naiz. Txikietan oso urduri egoten nintzen, taldekoak izurratzeko beldurrez. Orain konfidantza gehiago hartu dut eta oso lasai egoten naiz oholtzan"*.

Aitzol Munduate eta Iban Urdangarin

Entrenamentu ugari

Asko entrenatzen omen dute. *"Beti bertsotan ari gara. Arratsaldetan elkartzen garenean bertsotan aritzen gara, festetera joanda ere bai. Bertsoa bota eta bota"*. Onak ala txarrak, auskalo. *"Bertso txar-txarra botatzea zaila da, gehienak pilakoak izaten dira"*, esan digute. Aiako festetan gau osoa bertsotan pasatu omen zuten.

Goierriko bertso-eskolan egin zituzten lehen urratsak. Orain beste bi irakasle dituzte: Iarunbat goizetan Ekaitz Goikoetxea Beasaingo bertsolaria eta asteazken arratsaldetan Jexux Goikoetxea Ataungo eskolako irakaslea. *"Balio genuela esaten ziguten eta serio heldu genion, entrenatu eta entrenatu. Hori bai, Ekaitzekin hasi ez bagina ez ginen bertsolari aterako"*, aitortu digute.

Gipuzkoakoan lan ona

Euskal Herriko txapelketara iritsi aurretik Gipuzkoakoa jokatu zuten. Aitzolek, txikienen mailan, taldeka jokatu zuen Haitz Aierbe eta Oier Zurutuza ataundarrekin batera. Aurten ere Aitzolek lortu zuen finalerako txartela. Ibanek, lehenengo aldiz handienen mailan, txapela lortu zuen. Ez omen zuen espero eta poz ikaragarria hartu omen zuen. Datorren urtean gainerako ataundarrak handienen mailan arituko dira, 15 urte beteko baitituzte. Udan entrenatzen jarraitzeko asmoa daukate, sasoi ona ez galtzeko.

Lanik gustukoena?

Lan ezberdinak egin behar izaten dituzte bertsolariek eta bi ataundarrei, zer duten gustukoen eta zein lan den zailena galdetu diegu. Ibanentzat lan gustukuena, gaia emanda bertsoak botatzea da, ahal dela bakarka. Aitzolek berriz, ofizioko lana.

Lanik zailena zein den ez dakite zehazten. *"Zailik ez dago, gaiaren arabera izaten da"*, dio Ibanek. Profesionalek, zailena puntua erantzutea dela diote. Ibanen esanetan, *"zaila da bai baina erantzun edozeri egiten zaio. Horretan ere entrenatuta gaude"*. *"Erantzutea ez da zaila, ondo erantzutea bai"*, gaineratu du Aitzolek.

Bertsolarietan onena edo gustukoena nor duten ere galdetu diegu. Biek ahobatez erantzun digute: Andoni Egaña. Aitzolek Jesus Mari Irazu ere atsegin du.

Hauen mailaraino iristeko bidean badira ere, horretarako lan handia daukate oraindik. Baina bertsotarako grina barne-barnean daukate. Aitzol Munduateri Mungiako txapelketan 'Zer duzu gustukoena bertsolaritzan?' Gaia jarri zioten. Guk ere galdera berdina egin diegu: Aitzolek bat-batean, txapelketan botatako bertsoaren amaiera gogoratu digu: *"nahiz eta nàhi degun publikoaren txaloen artean amaitu, hori guztia gustuko izan arren txapelak itsutzen gaitu"*. Ibanek, honela erantzun digu: *"errimak ondo jostea eta nesketan hartzen den ospea"*.

Oraindik bertso saio gutxi edukitzen omen dituzte. Bertso afariak dituzte gustukuen. *"Onenak horixe dira. Nahikoa sagardo edanda, orduantxe botatzen dira bertsorik onenak. Denek txaloak jotzen dituzte gainera!"*, diote. Beraz, bertso afariak antolatzeko eskatzen dute lerro hauetatik ataundarrek, bertsolari bezala sendotzen joateko.

ZINEA

BEASAIN:

`28 dias´.
Ostirala 7: 22:15
Larunbata 8: 22:15
Igandea 9: 16:45 - 19:30 - 22:15
Astelehena 10: 19:30-22:15

ORDIZIA:

`Campo de batalla: la tierra´.
Ostirala 7: 22:15
Larunbata 8: 22:15
Igandea 9: 16:45 - 19:30 - 22:15
Astelehena 10: 19:30-22:15

musika

LAZKAO:

Uztailak **13**, Oskorri taldearen emanaldia, 21:30ean, Euskadi plazan.

Uztailak **20**, Drindots musika taldea, Euskadiko plazan, 21:00etan.

Goierriko bertso-eskolan ibilitakoen bilkura

Goierriko bertso-eskolak 18 urte betetzen dituela eta, urte hauetan guztietan ibilitakoen artean festatxo bat egin nahi dute Argi-Berri elkartekoek. Irailaren 9an izango da festa: arratsaldean luntxa eta gauean bertso jaialdia. Bertso-eskolan ibilitakoa bazara eta festatxora joan nahi baduzu, Ordiziako Gipuzkoa kaleko 15 zenbakira bidali zure datuak.

bertsoak

LAZKAO:

Uztailak **18**, Goierriko bertsolari gazteak: Iñaki Apalategi, Iban Urdangarin, Aitor Sarriegi, Alaitz Sarasola, Nerea Elustondo eta Ekaitz Goikoetxea, Euskadiko plazan, 21:00etan.

ZALDIBIA:

Uztailak **15**, Jon Lopategi eta Jon Azpillaga bertsolariak, Txamarratxen, 20:30ean.

antzerkia

LIERNI:

Uztailak **9**, Panta Rhei taldearen ikuskizuna, 16:30ean, Liernin.

hitzaldiak

ZALDIBIA:

Uztailak **13**, Kafe tertulia, bizi baldintzen inguruan, 16:00etan.

Uztailak **14**, Euskararen ofizialtasunari buruzko solasaldia, 16:00etan.

bestelakoak

LAZKAO:

Uztailak **12**, 'Lau haizetara' ipuinak, Koldo Ameztoy ipuin kontalariaren eskutik, Euskadiko plazan, 21:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Uztailaren 14ra arte, Olivia Sanchez, Marcetena, Edurne Maritxalar eta Mertxe Fernandezen talde erakusketa, Aterpe tabernan.

EKAINEAN SALDUENAK

LIBURUAK:

1- **Gatibu sortu nintzen**
Jokin Urain (Susa)
2- **Rosa Luxenburg**
Lore Agirre (Elkar)
3- **Txakurraren alaba**
Xabier Mendiguren (Elkar)
4- **Gaizkileen faktoria**
Alberto Barandiaran (Egunkaria)
5- **Abertzaleak eta ezkertiarrak**
Julen Zabalo (Elkar)

DISKOAK:

1- **Etsaiak**
'Zuzenean'00' (Esan ozenki)
2- **Joxe Ripiau**
'Bizitza triste eta ederra' (Esan ozenki)
3- **Oskorri**
'Ura' (Elkar)
4- **Etzakit**
'Goiz edo noiz?' (Elkar)
5- **Ruper Ordorika**
'Gaur-Zuzenean' (Esan ozenki)

Baga-Biga Kulturgaiakek emandako zerrenda

Helduentzat fandango eta arin-arin ikastaroa Ordizian

Ordiziako Jakintza dantza taldeak fandango eta arin-arin ikastaroa antolatu du helduentzat, uztaila eta irailean. Helduen arteko plazako dantzen suspertzea bultzatu nahi da. Horrekin batera, irailaren 30ean Oreretan izango den Erromeria berezirako prestaketa egingo da. Arana kaleko Jakintza dantza taldearen lokalean eman behar da izena.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Uztailak 8-9: Atorrasagasti
(Bustuntza auzoa- Ordizia). 943 88 29 34.

Uztailak 15-16: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 88 01 52.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa gizarte-ekintza obra social

Etxebizitzak

salgai

➡ Legorretan etxebizitza salgai. Dena berritua. 943806404.

➡ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943886834.

konpartitzeko

➡ Bi pertsona behar dira Leioan pisua osatzeko. Rebeka (606518229), Oihana (943800426), Ainhoa (636527957).

➡ Iruñean pisua osatzeko neska bat behar da. Unibertsitateetatik gertu. 943886519.

errentan

➡ Benidormen apartamentua alokatzen da, 2 edo 4 lagunentzat. Erabat ekipatua. Itsaso bistak baditu. Afalorduetan deitu. 943882467.

➡ Apartementua alokagai Laredon. Hondartza ondoan. 943795280.

➡ Urbasa ondoan etxea alokatzen da, asteburu eta oporretarako. 948 539381.

Debaldeko iragarkiak

GOIERRITARRA aldizkariak eskaintzen dizun doaneko tarte honetan iragarkiren bat jarri nahi baduzu, deitu 943-889612 telefonora. Edo nahiago baduzu, faxez (943-882719), postaz (Ordiziako 124 posta-kutxara)edo posta elektronikoz (goierritarra@topagunea.com) bidali zure mezua.

Aldizkari honezk ez du sail honetan argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Animaliak

opari

➡ Txakurkumeak oparitzen dira. 943883804.

➡ Katakumeak opari. 600 648788.

➡ 4 katakume, 'lehoi txikia' itxurakoak, opari. 15 egun ingurukoak. 943 880402.

salgai

➡ Artzai txakurra salgai. 8 hilabetekoa. 943885102.

➡ Setter arrazako txakurkumeak salgai. 943887617.

➡ Setter ingeles txakurkumeak salgai, pedegree oso onekoa. 667 955443. Aitor

➡ Cocker hispaniel ingelesa eskaintzen da arraza hobetzeko, pedegree onekoa. 943886164.

Ibilgailuak

salgai

➡ Land Roverra salgai. 88 ligero diesela. BI-AC. 943801107 (Joxe).

➡ Kawasaki ZX GR motoa salgai. 3.000 kim-rekin. 7 hilabeteko garantia. Alarmarekin. Egoera onean. 943806552.

➡ Opel Astra familiarra salgai, turbo diesela. 50.000 km. SS-AW. 609775000.

➡ Yamaha TZR 50 c.c. motorra salgai. Extrekin. Ongi zaindua. Prezio onean. 667239378.

➡ Volkswagen Golf GTI autoa salgai. BI-BC matrikuladuna. 943801802. Xabier. 21:30etik 22:00etara deitu.

ZUBIZARRETA ETXEGINTZA S.L.
Gudarien Etorbidea, 5 -1.A ORDIZIA
✆ 670 888 244 - 943 888 244 ✆

- ✘ Monumentu historikoen berritzea
- ✘ Karean iztukuak
- ✘ Pintura mineralak karean eta silikatoan
- ✘ Zarpeatu proiektatuak eta talotxatu finak
- ✘ Kapa bakarra
- ✘ Barruko eta kanpoko lanak

✔ Ingelera
- Orokorra, komertziala, teknikoa
- DBH (1-2-3-4), batxilergoa (1eta2), moduloak, unibertsitarientzat...

✔ Matematika, fisika-kimika, teknologia

✔ Lengua-euskara

"Promozionatzeko" udako lanak egin, nota igo eta hurrengo urtean eroso ibiltzeko

GOIERRI AKADEMIA
K. Nagusia, 32 - BEASAIN
☎ 943 888 203 - 669 290 476

MARRAZKETA TEKNIKOA
DBH (1-2-3-4), batxilergoa (1eta2), moduloak, unibertsitarientzat...
✔ Mekanika
✔ Galdaragintza (desarroiloak, plano interpretazioak)
✔ Unibertsitarioak

Bestelakoak

salgai

➡ Eskuko telefonoa eta Olivetti idaz makina salgai. 943882278.

➡ Movil-home bat salgai, Hondarribiako kanpin batean. 2 logela, jangela, garbigailu eta guzti. Jatorduetan deitu: 943 16 08 53.

➡ Conver 13, karro denda salgai. Bi abanzeekin. Denetik du. Prezio interesgarria. 943886788.

➡ Auto telegidatua salgai. Mega desert racer markakoa. Berria. 10.000 pezetan. 667239378. 3etatik aurrera deitu.

➡ 2 logelako kanpina salgai. 50.000 pezetan. 943 886521.

➡ Negurako egurra, txikituta, nahi baduzu, deitu gauez telefono honetara: 943 161638. Etxeetara eramaten da.

opari

➡ 1996. urtetik gaurdainoko Euskaldunon Egunkariak oparitzen dira. Beste euskal aldizkari eta liburu batzuk ere oparituko zaizkio Egunkariak eramaten dituenari. 943 88 90 53.

Lana

➡ Mutil bat behar da obratan lan egiteko. 943161032.

➡ Jatetxeko sukalderako emakume bat behar da. Esperientziaduna. Euskalduna. Kotxea beharrezkoa. 943880044.

➡ Etxeko lanak egin eta adineko bi pertsona zaintzeko pertsona bat behar da. 943889883.

➡ Neska gaztea eta euskalduna behar da tabernan zerbitzari gisa lan egiteko. 943880000.

➡ Neska euskaldun bat behar da astebururetan kamarera bezala lan egiteko, jatetxe batean. Esperientziaduna. 943880044.

Langai
Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

2 MANTENIMENDU MEKANIKO
Goierrin. Erref.: 32882/2

ETXEKO LANGILEA (umeak zaintzeko)
Donostian. Erref.: 34698/6

DENDARIA (telekomunikazio enpresa)
Donostian. Erref.: 34811/4

DENDARIA (txirrindu atala)
Donostian. Erref.: 35316/1

TXIRRINDU MEKANIKOA
Donostian. Erref.: 35348/3

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

➡ Beasainen neska bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. 943888751.

➡ Pertsona euskalduna behar da Araman orduka etxeko garbiketa lanak egiteko. 696005643.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"

K. Nagusia 35 ☎ 943 88 77 58 BEASAIN
Elosegi, 14 ☎ 943 88 72 79 LAZKAO
Sta. Maria, 19 ☎ 943 16 00 44 ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA 2000ko uda
☎ 943 160 120
Joan Iturrlalde, 5
BEASAIN

Lehen eta bigarren hezkuntza, LH, DBH (ESO)

Matematika tailerra:
✓ Kalkulua
✓ Buruketak

Batxilergoa:
✓ Hizkuntz-ulermena
✓ Espresioaren lanketa
✓ Testu komentaketak
✓ 2000-01 ikasturterako prestaketa

Talde txikiak

Ikas-mikas tailerra:
✓ Arreta mantendu
✓ Memoria garatu
✓ Arrrazoiketa landu
✓ Sormena garatu

Banakako atenzioa
2000-01 ikasturterako matrikula zabalik

Hizkuntza tailerra:
✓ Gaztelera
✓ Euskara
✓ Ingelera

Irakurketa
Ulermena
Ortografia
Idazmena

IKASTEK AKADEMIA 2000ko uda
☎ 943 160 120
Joan Iturrlalde, 5
BEASAIN

Lehen eta bigarren hezkuntza (6-16 urte):
✓ Tailerrak
✓ Ekaineko azterketak
✓ 2000-01 ikasturteko prestaketa

2000-01 ikasturterako matrikula zabalik

Batxilergoa DBHO (LOGSE) I eta II (16-18 urte)
Humanitiskoa, zientifikoa, teknologikoa:
✓ Errekuperaketak
✓ Selektibitatea
✓ 2000-01 ikasturterako prestaketa

Unibertsitate maila:
Ekaina - Iraila azterketak
✓ Ingeniaritza
✓ Enpresaritza
✓ Fisika - kimika
✓ Farmazia

Lazkaotarrak ibiladi neurtua bukatu ondoren

Xabier Soroak utzitako argazki hau 1969-70 ingurukoa da, Orobionen ateratakoa.

Zutik, ezkerretik eskubira: Kepa Gurrutxaga, Iñaki Gurrutxaga, Ane Lore Estala, Mari Karmen Añon (goikoa), Aintzane Estala (behekoa), Aitor Arruti, Mikel Estala, Maria Jesus Barandiaran, Fidel Agirre, Mertxe Altuna, Luis Mari Kerejeta eta Joxe Antonio Kerejeta.

Makurtuta: Edurne Mujika, Mari Jose Galarraga, Xabier Soroa, Xabier Agirre, Mila Iñigo, Jesus Mari Iñigo (Ganbo) eta Karlos Añon.

Bodegon Arrizar
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
ETXERAKO ZERBITZUA
Pizzak, Pasta, Sandwich-ak,
Plater Konbinatuak, Ogitartekoak...
Zaldizurreta, 7 BEASAIN ☎ 943 889 844

ITSASOKO OSTATUA
✔ Etxeko sukaldaritza.
✔ Eguneroko menua 800 pta.
✔ Udaberrian terraza zerbitzua
Aldez aurretik erreserba egiteko:
✆ 943 88 03 15

JOS & BEL
ILEAPAINDEGIA
Urdaneta, 15 ✆ 943 88 82 52 ORDIZIA

- Azken teknika eta nobedadeak
- Ospakizunetarako orrazkera bereziak
- Tratamendu bereziak: ile erorketa, e.a.
- Makilajeak, Manikura...
- Kosmetika osagaiak

Zutikako solariuma
4 eta 8 minutuko sesioak
(6 eta 8 sesiotako bonoak)

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea
ANZIZAR, S.A.
Autoen salmenta
Mekanika eta elektrizitatea
Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

GARMENDIA
Tejas y cubiertas S.L.

Egurrezko egitura tratatuak

Tejas TBF

ENGLERT - GIPUZKOA
ENGLERT
ALUMINIOZKO ETA KOBREZKO KANALOIAK SOLDAKETATARIK GABE

Redland Redland Ibérica EURO-10

Don POL AISLAMENTUAK

VELUX TEILATURAKO LEIHOAK

AURREKONTUAK NEURRIRA

Edozein motatako teilatuak egiteko prestatuak, komunitateak, baserriak, txaletak eta abar

AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

Tel-Faxa: 943 16 10 32 Maiuz Industrialdea, 26. pab. ORDIZIA

AZKENEKO ETXEBIZITZAK SALGAI LAZKAON

- 3 LOGELA
- SUKALDEA
- EGONGELA
- 2 BAINUGELA
- TERRAZA 1 edo 2
- 17.900.000 pezetatik hasita
- TRASTELEKUAK eta
- GARAJEAK ere bai
- LAZKAO ERDI-ERDIAN

TIBURTZIOENEA, S.L. Tel.: 943 16 24 72

2000ko UDAN BUKATZEKO PREST DAUDE, MUGI ZAITEZ!

FOTO ORDIZIA

ARGAZKI DENDA

DOMINGO UNANUE, 1
(GELTOKIAREN AURREAN)

Kodak PRODUCTOS ... EXPRESS COLOR

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

ERREBELATU NEURRI EZBERDINAK

9x13tik

20x30era

BETI KODAK ROYAL PAPERA ETA KODAK KIMIKOAK

NEGATIBORIK GABEKO ARGAZKIAK

EDOZEIN NEURRITATIK HANDITZEAK ETA TXIKITZEAK

KARNETEKO ARGAZKIAK

6 argazki instantean

UZTAILEKO ESKAINTZA BEREZIA*

%10eko DESKONTUA

ZOOM-dun KAMARA KONPAKTOETAN

%20eko DESKONTUA

ZOOM-gabeko KAMARA KONPAKTOETAN

* STOCK-ean DAUDEN KAMARETAN